ELKARRIZKETA: XABIER SARASUA, ABK-KO KIDEA

# Arrasate PRESS

2000.eko azaroaren 24a
518. zenb.

Adi! Datorren astetik aurrera Arrasate Press-ekin batera, bailarako informazio guztia zure eskura.

## Goienkaria

DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

EUREN IKUSPUNTUTIK: GAIZKA ERAÑA • ORAIN ETA HEMEN: BAI EUSKAL HERRIARI

KIROLA: PILOTA JAIALDIA • KULTURA: BADIHARDUGU


Astero
Bailaran
Euskaraz
Doan
Abenduaren 1etik aurrera,
Goienkaria
Debagoieneko Astekaria
zure eskura.
DEBAGOIENEKO ASTEKARI BERRIA
PUBLIZITATEA JARTZEKO: 943 71 23 91
Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

# Goienkaria abian

Goienkaria abian. Hori da gure asteko gai nagusia. Eta *Arrasate Press*ek hemendik aurrera aldaketa batzuk izango ditu. Hori dela eta, "Ikuspegia" sailaz jabetu da *Arrasate Press*ko erredakzioa, astekariak jasango dituen aldaketak azaltzeko. Hasteko, orri gutxiago izango ditu astekariak. Baina, ez ikaratu. *Arrasate Press*ekin batera astero-astero Goienkaria banatuko da-eta. Beste 24 orri bailarako informazio guztiarekin: albisteak, agenda zabala, zerbitzuak…

Horrelakoak orain arte *Arrasate Press*en jaso izan ditugu: iritziak, gutunak, zerbitzuak, azoka plaza eta baita liburu, disko eta kontzertuen erreseinak ere. Hemendik aurrera, gutunak eta iritzi artikuluak Goienkarian jasoko dira. Beraz, badakizue, ezer argitaratu nahi izanez gero, *Arrasate Press*era etorri eta hemendik Goienkariara zuzenduko ditugu zuen gutun eta iritzi artikuluak.

Azoka plazari dagokionez, Goienkarian argitaratuko dira horren praktikoak diren iragarki txikiak. Baina, horretarako, telefono zenbaki batera deitu beharko duzue. Adi, beraz!

Eta agendarako kontuak ere Otalorako egoitzan jasoko ditugu. Batzuk bailarako astekarian jasoko dira, baina Arrasatera mugatzen diren kontuak *Arrasate Press*ek jasoko ditu. Beraz, ez ezazue pentsa hemendik aurrera lekurik izango ez duzuenik zuen ekintzak iragartzeko. Ez horixe!

Bestalde, *Arrasate Press*ek astero izaten dituen erreportaje eta elkarrizketa nagusiak ere izango dute aldaketarik.

**Goienkaria abenduaren lehenean abiatuko da eta *Arrasate Press*ekin batera banatuko da**

Astero tartekatu egingo ditugu: batean erreportajea, eta bestean "aurrez aurre" norbait ipiniko dugu bere bizitzaren eta lanaren nondik norakoak kontatzeko. Hori dela eta, *Arrasate Press*ek aurpegia aldatu egingo du, hau da, azala ez da beti erreportajearekin bat etorriko.

Kultura orri bat gutxiago ere izango du *Arrasate Press*ek: liburu eta diskoen erreseinak egiten diren orria; zinemaren eta kontzertuaren orria, hain zuzen ere. Informazio horiek Goienkariak jasoko dituenez, berari eman diogu hori lantzeko ardura.

GOITBri dagokion tartea ere Goienkariak jasoko du. Herriko aldizkaria Arrasate Irratiaren gaineko kontuetaz arduratuko da; bailarako telebistaz, bailarako astekaria arduratuko delako.

Goienkariak informazioa bailara osora zabalduko du eta neurri handi batean lehen baino informazio gehiago izango dugu. Astero-astero banatuko da, erreportajean esaten den bezala, eta tokian tokiko herri aldizkariarekin banatuko da.

Hala ere, gogoratu *Arrasate Press*ekin batera banatuko dela Goienkaria, eta ARKOko erredakzioa batetik, eta GOIENAko erredakzioa bestetik, zuen zerbitzura daudela, betiko legez.

Goienkaria abenduaren lehenean aurkeztuko da Uarkapen, 19:00etan. ■

*Arrasate Press*ko erredakzioa

---

*"Herritarrek protagonismo handiagoa izan behar dute, Euskal Herriaren etorkizuna ezin da utzi, ez ETAren esku, ezta alderdi politikoen esku ere"*

**Xabier Sarasua**

## 6.200.000

**pezeta emango dizkio Eusko Jaurlaritzak Udal Haur Eskolari.**

Orain arte Umezaintza egon den ikastetxean berrikuntzak egin behar dituzte. Eta horretara bideratuko da dirua. Baina, pertsonal gastuetarako ere izango da.

Umezaintza ikasturte honetan hasi da Udal Haur Eskola bezala eskolak ematen.

AURKIBIDEA


- Ikuspegia . . . . . . . . . . . . 3
  **Goienkaria abian**
- Irakurlea idazle . . . . . . . . 4
- Inkesta . . . . . . . . . . . . . 5
- Euren ikuspuntutik . . . . . 6
  **Badihardugu**
- Begi kolpez . . . . . . . . . . 7
- Asteko hitzorduak . . . . 8/9
- Astearen errepasoa . . . 10
- Orain eta hemen. . . 11/12
- Txutxumutxuak . . . . 14/16
- Asteko gaia . . . . . . 17/19
  **Goienkaria abian**
- Aurrez aurre . . . . . . 20/21
  **Xabier Sarasua**
- Zaldibar areto futbola . . . . . 22/23
- Kirolak jokoan . . . . 24/25
- Eskola kirola . . . . . . . . 26
- Kulturaren txokoa . . . . . . . . . 27/29
- Ikusi eta entzun . . . 30/31
- Azoka plaza . . . . . . 32/33
- Foto zaharra. . . . . . . . . 34



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
**Arrasate Irratia:** 943 71 17 31

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Marijo Deogracias. **Kazetariak**: Ubane Madera eta Leire Kortabarria. **Publizitatea**: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:**: Sergio Azkarate. **Administrazioa**: Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua**: Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemailea:** Lorea Agiriano **Kolaboratzaileak**: Mikel Irizar, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta, Udaleko Gazteria Saila eta Eneko Azkarate. **Banaketa arduraduna**: Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala**: Goio Arana.

*Arrasateko Udalaren laguntzaz* | *Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz* | *Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz*

## ZERBITZUAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualatorioa .......... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) .......... 943 79 39 00
(emakumeak) ........ 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

**Larrialdiak**
SOS Deiak .......... 112
Gurutze Gorria ........ 943 76 55 76
DYA .......... 943 78 71 57

**Anbulatorioak**
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11
Astelehenetik larunbatera ... 17:00etatik 20:00etara
asteburu eta jai egunetan .......... egun osoa
Arrasate
Astelehenetik ostiralera ..... 08:00etatik 17:00etara
Larunbatetan . 09:00etatik 17:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria ... 943 03 52 50
• Espezialitateak ....... 943 03 53 11
• Ikuskatzailea .......... 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: ... 943 03 53 11
Aretxabaleta .......... 943 79 74 58
Aramaio .......... 945 44 53 40

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak 943 45 87 44

**Udaltzaingoa**
Oñati .......... 943 78 04 11
Bergara .......... 943 77 91 06
Arrasate .......... 943 79 14 39
Aretxabaleta .......... 943 79 10 52
Eskoriatza .......... 943 71 44 07

**Ertzaintza**
Arrasate .......... 943 79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea .......... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa .......... 900 40 05 23
.......... 943 79 78 44
.......... 943 79 76 78

**Garraioak**
Taxiak .......... 943 79 12 22
PESA. .......... 902 10 12 10

**Hirugarren adinekoentzako zentroak**
Iturbide Egoitza ........ 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

**Monterron liburutegia**
Monterron .......... 943 77 01 05

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

**Ostirala, 24**
• Amezua, Santa Marina

**Larunbata, 25**
• Zabala, Zarugalde

**Igandea, 26**
• Ruiz, Maalako Errabala

**Astelehena, 27**
• Morales, San Andres

**Asteartea, 28**
• Azkoaga, Ferrerias

**Asteazkena, 29**
• Azkoaga, Iturriotz

**Osteguna, 30**
• Korkuera, Musakola

## JOXEMARI BEREZIBARREN OROIMENEZ

Oraindik goizero zure bisitaren zain egoten gara. Zure ikasle, baratzeko, edo beste edozein gairi buruzko kontakizunen bat entzuteko edo eztabaidatzeko prest. Baina, egunak joan eta egunak etorri, eta ohartzen goaz zure hutsuneaz.

Guretako, hainbat istoriotan gauzatutako bizi esperientziaz gain, zintzotasunaren eta, batez ere, konpromisoaren adibidea izan zara. Gauzak errazak izan ez dituen gizon on baten barnea eta muina erakutsi diguzu eta ikasgai horiek ez dira ez edonon jasotzen direnak.

Bizitzarekiko eta inguruekiko zure konpromisoarekin gelditzen gara gidaliburu gisa, baina iluntasun itxienean argi izpitxo bat izatea nahikoa den bezala, noizbehinka gutaz gogoratu eta zure begiradatxo bat nahikoa izango da gure bidea argitzeko.

Ikusi arte Joxemari, bitartean agurrik ez.

Zure lankideak.

*Debagoieneko Garapen Agentzia*

## TEKNOLOGIA ETA ASKATASUNA

Teknologiaren aroan bizi gara. Baina, gizatasuna (gizakiak gogoa elikatzeko behar duen maitasun arima) une baxuan dabil. Eta erlazio zuzen bat dute elkarren artean. Teknologia oso ondo dago lanerako eta garraiorako, baina aisialdian zera gertatzen da: gizatasunaren oztopo zuzena dela. Hitz egiteko, sakontzeko, maitatzeko, giro txarrak dira: konpak diska duten tabernak, diskotekak, telebistadun etxeak, irratia pizturik dauden lekuak... Gailu hauek joan den mendekoak dira, irratia zaharrena, telebista, hemen Estatuan 58koa. Errobot gizatasuna, hori da. Gobernariek (garaiko kritiko batzuk tarteko, sendi giro epelaren kaltetan zihoazela ziotenak) baiezkoa eman zieten. Teknologia merkeak zirelako herria entregatu egin zitzaien. Arrotza zoko guztietan sartu zen. Arrotza nor? RNE, TVE1, ETB, Benitoren disko bat? Ez, arrotza gizatasun errobotikoa da, gaur egungo Luzifer erraldoia, gailua bera. Eta behin erosiz gero, bere tentazioanerortzeko uneoroko aukera, bakardadean edo taldean. Pozoia dute gailu horiek, hipnotizatu bezala egiten gaituzte eta egoera horretan degradaziora jotzen dugu, biolentzia, sexukeria, morboa, martxa, punkia, memelokeria, saldukeria, horrelako asko dute, gizatasunkeria artifiala. Zentzumenak iratzartu ditzagun! Austeritate dosi bat behar da hemen berria jaso nahi badugu, sormena ahuztu egiten dute aisialdiko gailuek, eta gero langabezia, nortasun ahulak eta mediokritatea datoz. Beste herri batzuek ere baditutzela gailuok? Hiru tonto dauden tokian denak listo esatea xelebrekeria bat da. Bakoitzak bere propietate diren aisialdi gailuak puskatu egin behar ditu, eta bihotza herrian duenak iraultza hedatu behar du. Etorkizunean telebista, bideoa, irratia, kasetta eta konpak diska ilegalizatu behar dira, eta bakean bizi Jainkoarekin; izan kristau, jentil, ateo edo sektarista. Gora izadia, gora herri naturala.

*Jon Otero*

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

# Ezagutzen duzu matrikuletan EUS pegatina ipintzeko kanpaina?

*EAk joan den astean aurkeztu zuen kanpaina*



**David Alonso**
**(19 urte)**
**Langilea**

Bai, ezagutzen dut, eta ondo deritzot.



**Jose Antonio Quiroga**
**(64 urte)**
**Erretiratua**

Ez, ez dut ezagutzen.



**Maria Gallego**
**(64 urte)**
**Etxekoandrea**

Gutxitan irteten naiz, eta autorik ez dudanez… ez, ez nago jakinaren gainean.



**Isidora Hernandez**
**(57 urte)**
**Etxekoandrea**

Zer edo zer entzun dut, baina nik ez dut gidatzen, eta senarrak eta semeek dakite nik baino hobeto zertaz den.



**Tomas Gutierrez**
**(40 urte)**
**Langilea**

Ez, ez dut horren inguruan ezer ere entzun.



**Karmen Arabaolaza**
**(63 urte)**
**Etxekoandrea**

Oso gutxi dakit. Baina, nire iritziz, bakoitza aske da nahi duena egiteko.



**Consuelo Arroyo**
**(47 urte)**
**Etxekoandrea**

Bai, ezagutzen dut. Hor bakoitzak ikusi behar du zer egin; nahi duenak ipin dezala.



**Sebastian Martin**
**(63 urte)**
**Erretiratua**

Bai, zer edo zer entzun dut. Dena dela, matrikula zaharrak ikustera ohitua nengoen, eta haiek ditut gogokoen.

LAKET
Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis
Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

GANBARA
• Enmarkazioak
• Estiloko markoak
• Laminak
• Arte lanak (margo lanak)
Arte ederretako materialean %25-30eko deskontua
Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37
Gabonak gainean dira. Hasi artea oparitzen!

Gambrinus
garagardotegia
• Menua: bazkariak eta afariak
• Karta
• Errazioak
Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

## USTEAK USTE

### *Pilotalekuko harmailetan*

**Joan den eguaztenean Uarkapera joan nintzen, Unanuek eta Nagorek pilotak aukeratu behar zituztelako.**

**Nire moduan beste jende asko zegoen han. Harmailetan gizonezko asko ikusi nituen. Emakumeak, hiru zenbatu nituen. Pilota gizonezkoen kontua ote?**

**Kontua da, han zeuden gehienak erretiratuak zirela, eta ziur asko, guztiak pilotazaleak. Badakizue horrelakoek ikusmin handia sortzen dutela azkenaldian. Arrazoia izan daiteke aspaldi zebiltzala mondragoetarrak behar den moduko pilotaleku baten zain. Eta seguru asko horregatik egoten da horrenbesteko ikusmina pilotari profesionalak pilotak aukeratzera etortzen direnean.**

**Dena dela, eta horrelakoek izaten duten ikusmina kontuan izanik, neguko arratsaldeak girotzeko gehiagotan antolatu beharko lirateke horrelakoak. Behintzat, Seber Altubeko jarlekuak ipini bitartean! Eta, jakina, neguan kalean jartzea baino, hobe da aterpean egotea, eta berogailua piztuz gero, zer esanik ez!**

**Marijo Deogracias**



# Badihardugu

*** Gaizka Eraña**

Azken hilliotan baillarako zenbait euskalzale batu gare Eibarren eta Badihardugu Alkartie sortu dogu.

Euskera alkarte barri honen helburu nagusixe da Deba ibar osoko euskalzalien inderrak batzie eta danon artien gure herriko berbakeriari bultzadatxo bat emutie.

Hola ba, idazki honen helburuek bi dire: alkartiaren barri emutie, eta azaruaren 25ien, zapatuen, egingo dittugun jardunaldixetara gonbidaketie.

Alkartiaren asmuek ondokuek dire:

- Gure berbakeriari prestijiue emutie, eta konplejuek bazterketie. Honekin batera, euskalkixaren erabillerie bultzaketie; hori bai, euskara batue bazter-tu barik.
- Gure berbakerie aztertuaz eta indertuaz, euskerie bera sendoketie.
- Belaunaldi barrixen transmisiñue ziurtatzie eta erabillerie zabalketie.

Oin arte egindako lanak honeitxek dire:

- Alkartiaren filosofixie, oiñarrixek eta helburuek batzen dittuen txostena idatzi.
- Izena eta logotipue aukeratu eta estatutuek idatzi.
- Gure euskalkixen eta gure euskalkixaren gaiñien idatzi dan guztixaren zerrendie osatu.
- Gure euskalkixen idazteko erizpidien behin-behiñeko txostena adostu.
- Lan-taldiaren eta proiektuaren giro baikorrak be eragiñe euki dau, eta hor daukou kalien Koldo Zuazok gai honen gaiñien idatzittako liburue: Euskararen sendabelarrak.

Oingoz 30 bat lagun alkartu gare, Debabarrena eta Debagoieneko herri guztixetakuek, baiñe asmue da alkartie ahalik eta gehixen haundiketie. Hortarako hasi gare eskualdeko euskalzale, idazle, filologo, irakasle, kultura eta euskara alkarte, hedabide eta abarrekin hartu-emunien. Ia talde indertsue egitten dogun. Danon laguntzie biher dogu-eta.

> **“Euskera alkarte barri honen helburu nagusixe euskalkixaren erabillerie bultzaketie da”**

Hona hemen Eibarren egingo diren jardunaldixen egitaraue, atiek zabal-zabalik dittuzu:

- **Lekue:** Eibarko Kultur Etxien, Bista Eder 10
- **Noiz:** azaruaren 25ien, zapatuen
- **Ordue:** goizeko 9:00etan.

- **Egitaraue:**
- 09:15 Harrerie.
- 09:45 Sarrera-agurre.
- 10:00 Koldo Zuazoren hitzaldixe.
- 10:30 Atsedenaldixe.
- 11:00 Alkartiaren aurkezpena: helburuek, jorratutako bidie, jardunbidie, funtzionamendue, lan-taldiek...
- 11:15 Lan-taldietan banatu.
- 12:15 Plenarixue: eztabaida eta aktie onartu.
- 13:15 Galdera-erantzunak.
- 13:55 Agurre eta argazkixe.

*Badihardu Alkartie-ko kidea

**Expres kafetegia**
- Ogi egin berria
- Olagarroa eta riveiro ona
- Urdaiazpiko egosia
- Kazuelatxoak

Maalako errebala, 8 · Tel.: 943 77 13 87

**S. CARRASCAL S.L.**
**Guk egindakoak:**
- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

***Fabrikan erakusketa***
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

ILE APAINDEGIA
Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

## ezkontzak

- Fernando Sanchez eta Mertxe Diosdado, azaroaren 18an.

## jaiotzak

- Oier Garitano Ahedo, azaroaren 11n.
- Danel Gonzalez Delgado, azaroaren 19an.

## heriotzak

- Pedro Iriarte Astola, azaroaren 14an, 79 urterekin.
- Ciriaco Bragado Alvarez, azaroaren 15ean, 79 urterekin.
- Jose Antonio Pueyo Serrano, azaroaren 16an, 56 urterekin.
- Amparo Landa Santa Lucia, azaroaren 17an, 73 urterekin.
- Angeles Delgado Blanco, azaroaren 20an, 89 urterekin.
- Eulalio Sampedro Urrutia, azaroaren 20an, 77 urterekin.
- Rosina Gonzalez Miravalles, azaroaren 21ean, 79 urterekin.

## mezak

**San Joan parrokia**
Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)

**San Frantzisko eliza**
Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)

**Uribarri parrokia**
Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

**San Andres eliza**
Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)

**Santa Teresa eliza**
Larunbata
19:00(elebiduna)
Igandea
10:30 (gaztelaniaz)
11:30 San Isidron (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

**Santamañako eliza**
Jaiegun bezpera eta larunbata
19:00 (gaztelaniaz)
Igandea
12:00 (gaztelaniaz)

## eskelak

✝

**Jose Ramos Prieto Jna.**

Arrasateko Udaleko Zinegotzia
2000.eko azaroaren 21ean hil zen, Gasteizen.

GOIAN BEGO

ARRASATEKO UDALBATZA

Arrasaten, 2000ko azaroaren 22an


**Eskelak, esker onak eta urteurrenak jartzeko tartea**

Azken eguna:
asteazken eguerdia

Tel.: 943 71 23 91



Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**
**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**
**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

## 24 ostirala

**■ ZINEMA**

*La Gran Vida*: 19:00 - 21:30. 13 urtetik aurrerakoendako.

**■ MEDINA AZAHARA**

*Medina Azahara*ren kontzertua izango da Bergarako Jam aretoan, 22:00etan. Sarrerak 1.800 pezetan salduko dira; aldez aurretik, 1.500.

**■ KOPLA ZAHARREN EMANALDIA**

Xabier Amurizak eta Mixel Ducauk bizkaiko kopla zaharren emanaldia eskainiko dute Aretxabaletako udaletxe zaharrean. Loramendi euskara elkarteak antolatutako ekitaldia 22:30ean hasiko da.

## 25 larunbata

**■ ZINEMA**

*Snatch, cerdos y diamantes:* 17:00 - 19:30 - 22:00. 18 urtetik aurrerakoendako.

**■ LUDOTEKA**

San Andres Herri Eskolan izango da Txatxilipurdiren Ludoteka Ibiltaria, 11:00etatik 13:00etara.

**■ UMEENDAKO ANTZERKIA**

Umeei zuzendutako "Txirrikiz" antzezlana eskainiko du *Kukubiltxo* taldeak. Sarrerak 400 pezetan salduko dira. Amaia antzokian, 17:00etan.

**■ BOST TALDE JAMEN**

Kontzertua eskainiko dute Jamen ondorengo taldeek: *Agnostic Front, Ignite, Discipline, Forgotten* eta *Shutdown*. 21:30ean.

## 26 igandea

**■ ZINEMA**

*Snatch, cerdos y diamantes:* 17:00 - 19:30 - 22:00. 13 urtetik aurrerakoendako.

**■ ROB HALFORD JAMEN**

Rob Halfordek, *Judas Priest* taldeko abeslari ohiak, kontzertua eskainiko du Bergarako Jam aretoan. *Overkill* taldea ere egongo da, 20:00etan. Sarrerak 2.800 pezetan salduko dira.

## 27 astelehena

**■ ZINEMA**

*Snatch, cerdos y diamantes:* 19:00 - 21:30. 13 urtetik aurrerakoendako.

**■ EMAKUMEA ETA LITERATURA**

Emakumea eta Literatura tailerraren aurreneko jardunaldia izango da. Truman Capoteren "Eskerregiteko eguneko bisitaria"-z egingo dute berba. Monterronen, 18:00etan.

## Abesbatzak eta Arrasate Musikal

Egubakoitz honetan, hilak 24, bi musika emanaldi izango dira Arrasaten. Arrasate Musikalek Santa Zeziliaren omenezko kontzertua eskainiko du bere egoitzan, 18:30ean. Eta, Goikobalu Txiki eta Gaztek eta Bergarako Orfeoi Gazteak elkarrekin jardungo dute, San Joan parrokian, 20:00etan.




943 344 494
• TELEF. FINKOA
• TELEF. MUGIKORRA
• AHOLKULARITZA INFORMATIKOA
• INTERNET
• TELEFONOGUNEAK
DEIKA telekom
ENPRESA ETA PARTIKULARREI ZUZENDUTAKO ZERBITZUA
ERRENTERIA Morrongilleta, 1 M. Etxeberria, 1
BEASAIN Nafarroa Hirib., 25
URRETXU Areizaga, 1
Eta orain Arrasaten ere bai:
ARRASATE Kontzezino, 12
BANATZAILE OFIZIALA: Euskaltel


• Astean zehar eguneko menua
• Aste bukaeretan plater konbinatuak
ANBOTOSTE TABERNA
Larrea Plaza, 2.ena • 20500 • Tel.: 943 79 68 30



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak • PVCko leihoak • Aluminiozko leihoak • Eskailerak • Armairu enpotratuak...
GREMIOEN KOORDINAZIOA
Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

# 28 asteartea

**■ ZINEMA**

*Snatch, cerdos y diamantes:* 19:00 - 21:30. 13 urtetik aurrerakoendako.

**■ GLOBALIZAZIO HIZPIDE**

ESK sindikatuak globalizazioaren aurkako hitzaldia antolatu du. Oñatin izango da eta Hemen eta Munduan taldeko Josu Egiraun izango da hizlaria.

# 30 osteguna

**■ AZAROKO ZINEMA**

Arturo Ripsteinen *El coronel no tiene quien le escriba* filma eskainiko da. Amaia antzokian, 21:30ean.

**■ ARIZMENDI TOPAKETAK**

Aurtengo Arizmendi Topaketak egingo dira, Eskola Politeknikoan, 18:30ean.

**■ EUSKARA ETA SEXISMOA**

*Euskara eta sexismoa: hizkuntzaren erabilera ez sexista* hitzaldia emango du Begoña Muruagak, Ekin Emakumeak taldearen, Emakume Sailaren eta Emakunderen eskutik. Ekinen egoitzan, 19:00etan.

**■ JAM ARETOA**

*Soulfly, Earthone* eta *Glassjaw* taldeen emanaldia izango da Bergarako Jamen, 21:30ean.

**■ ODOL ATERATZEAK**

Odol ateratze saioa egingo du Odola Sartzeko Euskal Zentroak azaroaren 27 eta 29an, Arrasateko anbulatorioan, 16:00etatik 20:00etara.

**■ BADIHARDUGU ALKARTIA**

Badihardugu Alkartiak bere sorrera-batzarra egingo du azaroaren 25ean, Eibarko Kultur Etxean (Bista Eder, 10), 9:00etan.

**■ TAILA IKASTAROA**

Goi mailako taila ikastaroa antolatu du Arrasateko Tailaginen Elkarteak. Abenduaren 11n hasiko da, eta ordutegia 18:15etik 20:15era izango da. Izena emateko, deitu Felixi (943 79 40 79) edo Jose Mariri (943 79 77 57).

**■ AHT-REN AURKAKO IBILALDIA**

Igandean, hilaren 26an AHTren aurkako mendi ibilaldia egingo dute Urruñatik Oiartzunera. Harremanetarako 943 51 81 68.

**■ LUDOTEKA, ZABALIK**

Datorren eguaztenean zabalduko da berriro Seber Altubeko ludoteka. Hainbat konponketa-lan egin dira bertan, eta gertu dago 3tik 12 urte bitarteko umeek nahi adina jolas egin dezaten. Honako ordutegia izango du: eguaztenetan: 17:00 - 20:00. Zapatutan: 17:00 - 19:00.

## Desobedientzia Zibila

Eskola Politeknikoan jardunaldiak izango dira.

**ASTELEHENA, 27**
**18:45** Euskal Selekzioa Orain! (ESAIT, Mikel Aranburu eta Oier Zearra).

**EGUAZTENA, 29**
**18:45** Bai Euskal Herriari eta Herria Mugi.

**EGUENA, 30**
**18:45** Testuliburu eta eredu erdaldunei intsumisioa.


Merkataritzako Jardunaldia

BANKUEKIN NEGOZIATZEA

- **Lekua:** Lantegi Eskolako Aretoa
- **Egunak:** 2000ko azaroaren 28 eta 29an
- **Ordutegia:** 14:15 - 16:15
- **Prezioa:** 500 pta. (IBAI-ARTEko bazkideak dohainik)
- **Plazak mugatuak.**

Txartelak aurrez jaso behar dira, Beatriz oinetako dendan edo Zabaleta lurrindegian. Jardunaldiaren ondorengo 10 egunetan, etorritakoei gaiari buruzko dohaineko kontsulta zerbitzua eskainiko zaie.

Antolatzaileak: GATC, ibai-arte ARRASATE ERDIALDEKO MERKATAL ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

Babeslea: EUSKO JAURLARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA



CAFÉ IAMAI
KONTZEZINO KALEA 14
943 71 29 95 – 20500 ARRASATE

## astea bi hitzetan

**■ Parkeak kudeatzeko**

Arrasateko Udalaren enkarguz, Mendia Bizirik talde ekologistak Santa Barbara eta Monterron parkeak eta Etxezarretako lursailaren egoera aztertuko du. Jakin nahi da zein motatako kudeaketa egiten den aipatutako guneetan, eta hori oinarri hartuta, lursailetan jarduteko irizpide eta proposamenak finkatzea; izan ere, ekologisten ustez, gune hauen mantenimendua eta kudeaketa "zentzugabekoa" da.

Lanon emaitzak 4-5 hilabeteren buruan jakinaraziko dira.

**■ DANOBAT indartsu**

MCCren barruan dagoen DANOBAT enpresak 1.400 milioi pezetako eskariak jaso ditu azken sei hilabeteotan. Frantziako, Belgikako eta Singapurreko hegazkin enpresa batzuk dira bezeroak. Hain justu, hegazkingintzan erabiltzen den makina berezi bat salduko die Elgoibarko enpresak; DANTIP da bere izena.

**■ Istripuak nonahi**

Pasa den egubakoitza, zoritxarrez, emankorra izan zen istripueri dagokienez. Debagoienean bost istripu izan ziren: bat Arrasaten eta besteak Aretxabaleta eta Eskoriatzan. Kanpanzarkoa izan zen larriena. Gidaria, 24 urteko neska, auto barruan harrapatuta geratu zen eta suhiltzaileek eta ertzainek atera behar izan zuten. Aretxabaletako istripuak, berriz, saihesbidean gertatu ziren, eta bi mondragoetarrek zauriak izan zituzten. Eskoriatzan, batetik Arlabango mendatea itxi egin behar izan zuten kamioi batek izandako istripuaren ondorioz; gainera, beste ezbehar txiki bat ere izan zen herriko errepidean.




**■ Museo Industriala**

Arrasateko Udalak Bixente Barandiaran erremintariarekin hitzarmena sinatu du, industriaren inguruko erakusketa prestatzeko. Besteak beste, erremintari horren makinak erabiliko dira erakusketan.

Oraingoz, noizbait Arrasateko Industria Museoan jarriko diren makinak Cerrajerako pabilioi baten daude gordeta; baina, kontuan izanda biltegi horiek bota egin behar direla, udalak erabaki du makinak Lasak ospitalearen atzean duen pabilioira eramatea.

> **"** Garzon epailearen kasua paradigmatikoa da. Amerika Latina osoan demokrazia ordezkatzailaren defendatzaile sutsuena bezala agertzen den bitartean, Espainiako Estatuaren barnean berak gidatzen du disidentziaren aurkako eta erreibindikazio demokratikoaren aurkako errepresioa. Alabaina, demokraziaren defentsan Nazio artean egindako lana itxura soilik da; Espainiako Estatuan benetako bilakaera faxista ezkutatu eta bermatu egiten duena".
>
> **ANTTON MENDIZABAL**
> *Argia*
> (2000.11.19)

I K A S T A R O A

# Autoenplegua eta enpresa ekimena

- **Helburua:** ekimen berriak eta autoenplegua suspertzea. Enpresa kultura zabaltzea eta formazioa ematea, enpresa proiektu bat garatzeko.
- **Norentzat:** autoenpleguaren bidea jorratzeko eta negozio ideia bat abian jartzeko asmoa daukaten promotoreentzat.
- **Zer eskaintzen den:** negozio ideia bat duten pertsonentzat 60 orduko ikastaro praktiko bat, proiektua aurrera eramateko.
- **Iraupena:** abenduaren 4tik urtarrilaren 23a arte

**Argibide gehiago jaso edo izenak emateko:** Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuan abenduaren 1a baino lehen. Tel.: 943 79 09 00.

ARRASATEKO UDALA **Enplegu Zerbitzua ■**

# Alde Zaharra oinezkoendako

Olarte eta San Frantzisko Xabier kaleetako lanak ia bukatu dituzte, eta, ondorioz, hasi gara ikusten Alde Zaharrak hemendik aurrera izango duen itxura.

Asteazkenean zabaldu zen San Frantzisko Xabier kalea, eta harrezkero automobilak handik sartu behar dira Olarte kalera joan nahi izanez gero. Ondoren, Arbolapetatik irten beharko dute.

Horrekin batera, Garibai etxeko sarrera itxi egin dute, zolaketa lanak egiten hasi direlako. Datozen 2-3 asteotan jardungo dute lurra zolatzen.

Lan hauen arduradunak adierazi digunez, segidan Portaloitik Maalarainoko zatiarekin hasiko dira. Lanok iraun bitartean, erdigunera joateko Maalatik sartu beharko dira ibilgailuak.



Alde Zaharreko zirkulazioa aldatu da behin-betiko.

**GABONETAN, LIBRE**

Zolaketa lanak abenduaren 21ean bukatuko dituzte; ondoren, lanak eten egingo dira urtarrilera arte. Gabonetan ibiltzen den jende piloa kontuan hartuta, ahalik eta eragozpen gutxien sortzea da asmoa.

Gabonak baino lehen, berriz, Arbolapeta plaza, Olarte osoa, Hotel Arrasateren aurrealdea eta Seber Altube ez den beste guztia bukatuta egongo da, eta urtarriletik aurrera Seber Altube plazari dagozkion lanak egiten hasiko dira.

## Aparkalekuak, laster

Otalora kalean aparkalekuak egin eta zerbitzuetako sareak ipintzeko lanak adjudikatu ditu udalak. 40 bat aparkaleku egingo dira, errepidearen erdialdea aprobetxatuz; hain justu, gaur egun jendeak aparkatzeko erabiltzen duen gune berean.

Horrez gain, zerbitzuetako sareak ere jarriko dira: argiteria, telefono eta ur sareak eta lorategietako konponketak.

**URTE BUKAERA**

Lanok Frixi izeneko enpresak egingo ditu, eta ia 8 milioi pezetako diru kopurua du.

Urte bukaera baino lehen hasiko dira lanak egiten; ondoren, bi hilabeteko epea dute bukatzeko.

## Bai Euskal Herriari




Martitzenean egin zen Bai Euskal Herriari izeneko herri ekimenaren aurkezpena Monterron jauregian.

Ekimen plurala izanda, herriko makina bat jende egon zen ekimenari atxikimendua adierazten.

Modu horretan, bat egin dute Bai Euskal Herriari ekimenak defendatzen duen helburu nagusiarekin: Euskal Herriaren subiranotasuna.

Prentsaurrekoan adierazi zenez, Mondragoen 1.000 sinadura batu dira Udalbitzari Herritartasun Nazio Agiria sortzeko eskatuz; bide horretatik segituko dute sinadura gehiago batzen.

## Anbulatorioa egokitzen

Astelehenean hasi eta datozen bi-hiru asteotan lanak ikusiko ditugu Arrasateko anbulatorioan: batetik, pediatriako kontsultara doazenendako sarrera berri bat egingo dute aurreko atetik; bestetik, administrazio bulegoak eta ikuskatze zerbitzuak (espirometria, analisiak...) hirugarren solairura eramango dira.

Eragozpenak ahalik eta txikienak izateko, lanok arratsaldeko hiruretatik aurrera egingo dituzte. Horrez gain, gela bereziak ere prestatu dituzte orain arteko zerbitzu berberak ematen jarraitu ahal izateko.

## Eskaintza berriak ETEOn

Mondragon Unibertsitateak graduatu ondorengo hiru titulu berri eskainiko ditu. Enpresa-zientziatako gaiak jorratzen dituzten bi master eta doktorego bat jarriko ditu abian urtarriletik aurrera: enpresen zuzendaritzari buruzko masterra, enpresetako informazio sistemei buruzko masterra eta enpresen administrazio eta zuzendaritzan doktore izateko ikasketak. Enpresa-zientziei dagozkien alorrak izanda, Oñatiko fakultatean emango dira eskolak.

Enpresen zuzendaritzako masterra urtarrilaren 16an hasiko da eta otsailaren 27an bukatuko da.

Enpresetako informazio sistemetako masterra, berriz, urtarrilaren 15etik ekainaren 29era izango da, eta doktoregoa lortzeko, gutxienez, hiru urteko ikasketak egin beharko dira.

## Justizia euskaraz

Euskal Herrian Euskaraz taldeko hainbat lagunek euskararen aldeko ekimena egin zuten zapatuan Mondragoeko Bake Epaitegiaren aurrean. Justizia Administrazioan euskara erabiltzearen alde, gaztelaniaz zeuden kartelak ezabatu eta euskararen aldeko mezuak ipini zituzten. Amaitu orduko, Bake Epaitegiko aurrealdea guztiz estalita geratu zen.

## Txakurrendako "komunak"

Txakur-kakak edozein lekutan ikustearekin aspertuta, txakurrei beren beharrak egiteko tokiak ipintzea erabaki du udalak. Lehenengo aldia da txakur-kakek sortzen duten arazoaren aurrean neurriak hartzen direla, beraz, probatzeko, herriko 3 berdegunetan jarriko ditu: Musakola auzoan, San Andresen eta Erguinen. Ondo funtzionatuz gero, herriko beste toki batzuetan ipintzea ere aurreikusi da.

Urte bukaera baino lehen hasiko dira "komunak" ipintzen eta milioi bat pezeta pasatxo emango du udalak.

## Kale bilkura

ETAk hilketa bat egiten duen bakoitzean ohikoa denez, eguaztenean kale bilkurak egin ziren Mondragoen. Bata eguerdian izan zen Herriko Plazan, lehendakariaren deialdiarekin bat eginez. Bestea iluntzean izan zen, Bakearen Aldeko Koordinakundeak deituta.

Batean zein bestean elkartutakoek Ernest Lluc ministro sozialista ohiaren hilketa gaitzesi zuten.

# Ulmak bat egingo du MCCrekin

Zazpi urteko banaketaren ondoren, Ulma taldeak bat egin lezake Mondragon Kooperatiba Korporazioarekin. Jakin izan dugunez, erakunde bietako arduradunek hainbat batzar egin dituzte gai horren inguruan, eta badirudi, oraingoz behintzat, ez dagoela oztoporik.

MCCko iturriek adierazi dutenez, MCCk begi onez ikusten du Ulmak egindako proposamena.



Oñatiko Zubillaga auzoan dago Ulma kooperatiba.

Ulmako arduradunek, bestalde, onartu egin dute elkarrizketak izan direla eta izango direla, baina oraindik denbora beharko dela esan dute, taldea osatzen duten enpresek eta baita Ulmak berak ere proposamena onartzeko.

Edozelan ere, datorren urteko apirilean ofizial egin daiteke talde bien bat-egitea.

Bi enpresen bat-egiteak gainditu egingo du orain zazpi urte bien artean sortutako banaketa. MCC eratu zenean, 1991n, Ulmak prozesu guztian parte hartu zuen. Sartzeko erabakia hartzeko orduan, ostera, atzera egin eta bere bideari ekin zion. Zenbait pertsonaren jokaerak eta MCCren malgutasun faltak eragin zuen enpresa bien urruntzea. Jabier Mongelos zen MCCko buru eta Iñigo Agirre Ulmako zuzendari; gaur egun, berriz, enpresa hauetatik kanpo daude.

## Ramos Prieto zinegotzia hil da



Martitzen gauean hil zen Jose Ramos Prieto Alderdi Popularreko zinegotzia, bihotzekoak jota. 59 urte zituen eta Ourensekoa zen jaiotzez, baina Mondragoen bizi zen bere emazte eta seme-alabekin.

Pasa den ekaineko hauteskundeetatik zinegotzi lanak betetzen zituen herriko udalean Antonio Palacios alderdikidearekin batera.

Hileta elizkizunak emaztearen herrian egin ziren eguenean, Burgosko Busto de Bureban. Udaleko hainbat ordezkari ere hantxe izan ziren.

Goian bego.

## ETA atentatuen egile

Mondragoeko Mecanizados Alberdi eta JOMA enpresen kontrako atentatuak egin izana onartu zuen ETAk, domekan atera zuen prentsa-oharrean.

"Euskal Herriaren askatasunaren aldeko diru laguntza eman nahi ez izateagatik" izan dira bi atentatuak, ETAren esanetan.




Etxebizitza Kontua
EUSKADIKO KUTXA
Maletak egiteko asmotan bazabiltza...
Euskadiko Kutxak zugan pentsatu du.
Ireki Etxebizitza kontu bat,
eraman bi opari hauek
eta has zaitez oraintxe bertan zure etorkizuneko etxebizitzagatik desgrabatzen. Informa zaitez.
Irekitzen diren kontuentzat bakarrik.
Gutxieneko sarrera 150.000 pta.
Promozio honek
2000-12-15era arte balio du.
901 333 444
www.cajalaboral.es
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA
Zurekin
elkarlanean



## ARDOTXO EDERRA…

… Corazon de Encina elkartekoek dastatu zutena asteburuan, elkartearen eguneko ospakizunetan. Hemen ohorezko brindisa egiten ikus ditzakezue. Zazpigarren urtez izan dute ospakizun hau, eta ziur beste askotarako ere izango dutela.

## … ETA BUZKANTZA MUNDIALAK



Eusko Alkartasunako bazkide eta jarraitzaileek sabeleratu zituztenak. Primeran lagundu zituzten, gainera, ardi-zahar okelarekin. Han prestatu zuten eran, okela horrek ez ei du bildotsaren inbidiarik.

## AURKI, BERRIRO ZUEKIN



Jorge Fernandez arrasatearra, Mister Espainia, lanez gainezka dabil bere erregetzako azken txanpan: 2001erako egutegi bateko argazki batean ikusi ahal izango dugu, eta baita telebistan ere, Tele 5 kateko saio batean.

TTUKUN
Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Hilbera kafetegia
Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70


kukubiltxo
antzerki taldea
haurrentzako antzerkia
Txirrikiz
Amaia Antzokian
Azaroaren 25ean • Arratsaldeko 17:00etan
Sarrera: 400 PTA.
ARRASATEKO UDALA
Kultura Saila



## ZORTE ON, ARAN!

ARKOko publizista moduan urte eta erdi jardun ondoren, agur esan digu Arantzazu Arroiabek. Aurrerantzean, Euskaldunon Egunkarian arituko da marketin saileko arduradun bezala. Eskerrik asko zure alaitasunarengatik, eta zorte on!



## ARETOZAIN BEHARREAN?

**Umez eta gurasoz lehertu beharrean egon zen Monterrongo Haur Liburutegia. Arrazoia, Enkarni Genuaren Erreka Mari txotxongilo saioak piztutako ikusmina. Aretozain faltan, Enkarni bera aritu zen lan horretan.**



MADINA ZURAK
Aroztegia
Olak, aglomeratuak, kontratxapatuak, tablexa, ateak, egurrezko leihoak, oin-inguruak, zangoak, aroztegiko osagarriak.
Zarugalde, 40 •Tel.: 943 79 13 78

MARKO-JARTZEAK
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

Lore
• Lurrindegia • Kabina •
• Fotodepilazioa •
Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

# Goienkaria abian

## Eskualde osorako astekaria datorren astean argitaratuko da

**Datorren ostiralean, abenduak 1, komunikabide berria jaioko da: Goienkaria, Debagoieneko lehenengo astekaria. Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartean biltzen diren bailarako euskara elkarte guztien ekimenari esker, eskualde osorako egindako astekaria izango da.**




Goienak urte honetan bailara osorako bi komunikabide abiatzea zuen helburu. Batetik, Goiena Telebista, gaur egun, oraindik, Leintz aldean bakarrik ikusten dena, eta laster Antzuolara ere zabalduko dena. Bestetik, Goienkaria: Aramaio, Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Antzuola eta Elgetako etxeetan doan banatuko den egunkari itxurako astekaria. "Gure asmoa Goienkaria lehenago abiatzea zen, baina idatzizko komunikabideen gaineko hausnarketa sakona egin dugu, eta horrek epeak atzeratu egin ditu. Edozelan ere, urte amaieran jaioko den arren, etorkizunean prentsa alorrean egin nahi dugunaren oinarriak finkatu ditugula esango nuke. Uste dut merezi izan duela gauzak ondo egiteko astia hartzea", esan digu Goiena elkartearen Zuzendari Nagusi Mikel Irizarrek.



### HERRIETAKO ETA ESKUALDEKO INFORMAZIOA

Bailarako tokian tokiko aldizkariek urteak daramatzate informazio lokala lantzen. *Arrasate Press,* Aretxagazeta, Berrigara, Ze Barri? (Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga), Goibekokale (Elgeta), Kontuola (Antzuola) eta Kontzejupetik (Oñati) informazioaren erreferentzia dira, bakoitza bere esparruan. Baina, eskualde osoan banatzen den euskarazko idatzizko komunikabiderik ez dago. Hutsune hori betetzera dator Goienkaria. Horregatik, herri aldizkarien osagarri izango da: hauek herriko berriak landuko dituzte eta Goienkariak, eskualdekoak. “Herriek egiten dute eskualdea, baina, era berean, eskualdea bera ere bada albiste sortzaile. Bestalde, badira herri guztientzako komunak diren erakunde, elkarte edo zerbitzuak, eta baita denentzako, aretxabaletarrentzako zein oñatiarrentzako, esaterako, interesekoak izan daitezkeen albisteak. Horiei eutsi nahi diegu”, diosku Eneko Azkarate Goienkariako zuzendariak. Eneko bergararra da eta hainbat urtetan Berrigarako zuzendaria izan da.

### ZELAKOA IZANGO DA?

Goienkaria A3 formatukoa izango da, hau da, bailarako herri aldizkariak baino handiagoa, egunkarien itxurakoa. Prentsa-paperean eta errotatiban inprimatuko da. “Inprimatze kostuak askoz ere merkeagoak dira eta horrek egiten du bideragarri proiektua”, diosku Mikel Irizarrek.

Goienkariak 24 orrialde izango ditu eta bi zatitan banatuko da: lehenengoan asteko gai nagusiak, albisteak, elkarrizketak eta kirolak jasoko dira; horiekin batera, iritziak emateko eta eskelentzako tartea ere izango da. Bigarren zatian, Goienka2a izenekoa, kultura, aisialdia, agenda, zerbitzuak, denborapasa eta Goiena Telebistari buruzko informazioa jasoko da, besteak beste. Partikula-

**Egunkari itxurakoa izango da, errotatiban eta prentsa-paperean inprimatutakoa**

**Ostiralero, 20.000 ale inguru banatuko dira Debagoieneko herri denetan**

## EGUNKARIRA BIDEAN

**Lau dira Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartearen jarduera-arlo nagusiak: telebista, prentsa, irratia eta zerbitzu telematikoak. Landuen eta garatuen daudenak, ordea, telebista eta prentsa dira, nahiz eta egitasmoak bere osotasunean gauzatu barik egon oraindik. Lan-esparrua, ostera, Debagoiena da.**

**Prentsa arloari dagokionez, hausnarketa prozesu sakon batean murgilduta izan dira aurten herrietako komunikabide eta euskara elkarteak. Eskualde osorako komunikabide bat abiarazi nahi da, baina herrietakoei eutsiz. Hori dela eta, epe batzuk zehaztu dira bailarako aldizkari denak astekari bihurtzeko. Abenduaren 1ean Goienkaria argitaratuko da eta eskualdeko gainerako herri aldizkariekin batera banatuko da, hauek kaleratzen direnean. Datorren urteko maiatzerako, berriz, gaur egungo herri aldizkariak birmoldatu eta A3 formatura aldatuko dira. Lau edizio lokal sortuko dira: Bergarakoa, Oñatikoa, Aretxabaletakoa eta Arrasatekoa. Bergarakoan, bertako, Antzuolako eta Elgetako berriak jasoko dira. Oñatikoan bertakoak. Aretxabaletakoan, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Aretxabaleta bertakoak. Azkenik, Arrasatekoan, Aramaiokoak eta Arrasatekoak. Mantxetei edo aldizkarien izenei eutsiko zaie eta lau edizioak astero argitaratuko dira, Goienkariarekin batera. Beraz, informazio lokala eta eskualdekoa txertatuko dira produktu bakarrean.**

**Etorkizunean, egunerokoa egitea da Goienaren helburua, baina horretarako bideragarritasun plana egin beharko da: finantzaketa, banaketa, langileak etab. ziurtatu beharko dira. Finantzaketa modu berriak eta eguneroko banaketa zelan egin aztertzeko, bi pertsona hartu dira. Datorren urteko udazkenerako erabaki nahi da egunkarirako urratsa eman edo ez.**



Goienkariak udal hauteskundeen biharamunean ale berezia atera zuen.

rren iragarki laburrentzat ere izango da orrialde bat. "Agendari eta zerbitzuen informazioari garrantzi handia emango diegu. Bailarakoaz gain, Gasteizko eta auzo-herrietako kultura agenda osatua jaso nahi dugu. Gainontzean, ohiko egunkari baten sailak izango ditu", dio Eneko Azkaratek.

Diseinuari dagokionez, "astekari erakargarria eta irakurtzera animatuko duena egin nahi dugu", diosku Goio Arana diseinu arduradunak. Goio *Arrasate Press*ko diseinatzaile eta maketatzailea izandakoa da urteetan. Orrialde batzuk, azala eta kontrazala, esaterako, koloretan inprimatuko dira. Gainerakoak, tinta bakarrean.

## DEBAGOIENEKO KAZETARIEK EGINA

Eskualdeko herri aldizkarietan lanean dihardutenedo ibili diren kazetari, komertzial eta maketatzaileek egingo dute Goienkaria. Hauek Debagoieneko herri guztietako kolaboratzaileen laguntza izango dute: iritzi artikuluak idazteko, marrazkiak edo ilustrazioak egiteko edota beste hainbat sailetan idazteko. Eneko Azkaratek dioenez, "jende askok egingo du Goienkaria, herri denetako jendeak, eta herritarren parte hartzea bultzatu nahi dugu, aldizkaria interesgarriagoa egiteko. Funtzionamendua zaildu egingo du, koordinazio lan handia eskatzen duelako, baina merezi duela uste dut".

Goienkariaren egoitza nagusia Bergaran egongo da, Berrigarako erredakzioaren ondoan, baina *Arrasate Press* eta Aretxagazetarekin lotuta egongo da, sare informatikoaren bitartez. Etorkizunean, Oñatiko ordezkaritza ere lotzea da asmoa. Intranetaren bitartez, artxiboak, informazioa, argazkiak etab. konpartitzeko aukera izango dute ordezkaritzek.

## ASTERO, ZUEN ESKURA

Goienkaria ostiralero banatuko da, doan, Debagoieneko etxeetan. Bergaran, Antzuolan eta Arrasaten, bertako astekariekin batera. Beste herrietan, bakarrik aldizkaririk ez dagoenean eta aldizkariekin batera hauek argitaratzen direnean. 20.000 ale inguru banatuko dira. Beraz, ale kopururik handieneko euskarazko astekaria izango da. Herri denetan antolatuko dira banaketa taldeak, herritarrek ostiralero euren etxeko postontzietan jaso ahal izateko.

## IRAGARLEENTZAKO EUSKARRI ONA

Goienkaria Debagoieneko ia etxe guztietan banatuko dela esan dugu. Beraz, bailarako zein bailaraz kanpoko merkatzaritza-etxe, dendari, enpresa eta abarrentzako euskarri ona izango da. Herri aldizkariak finantzatzeko biderik nagusietako bat publizitatea da eta Goienkariarekin bide horri eutsi nahi dio Goienak. "Euskarri berri bat eskainiko diegu merkatari, enpresa edota erakundeei; hau da, Debagoienean nagusi izango den komunikabide batean publizitatea egiteko aukera eskainiko zaie. Nor bere herriko aldizkarian egitea nahiago dutenak izango dira, baina bere mezu edo eskaintza eskualde osoko herrietara zabaltzeko interesa dutenak ere bai. Bakoitzak aukeratuko du", diosku merkataritza arloko arduradun Gotzon Arzelus bergararrak. ■

**Eneko Azkarate**


















## XABIER SARASUA (ABK: DESOBEDIENTZIA ZIBILA BULTZATZE

# *“Euskal Herria beti iz*

**Xabier Sarasua irakaslea da lanbidez, baina bestelako zeregin ugari betetzen ditu bere ordu libreetan, euskararen alde bereziki. Horrez gain, Autodeterminazioaren Biltzarrean (ABK) lanean ari da 1996az geroztik, beste antimilitarista asko bezala, desobedientzia bultzatzen.**

**— Zer da ABK?**

— Gizarte mugimendu anitza eta erabat independentea da, inongo alderdi politikorekin eta sindikaturekin lotura izan barik. Mota askotako abertzaleak batzen dituen bilgune bat.

Autodeterminazioa gauzatzeko bideak abian jartzea da taldearen helburua.

**— Zein ekintza egin dira?**

— Alderdi politiko eta sindikatuekin ezkutuko lan ugari; adibidez, Lizarra-Garaziko zuzendaritza batzordean sorreratik egon da. Desobedientzia zibiliari dagokionez, berriz, ekimen ugari bultzatu dira, Faisaien uhartearen okupazioa, adibidez; NArekin zerbait egitea izan daiteke hurrengoa; Gandhik ere ez al zituen bada paperak erre? Edozelan ere, hemendik aurrera beharrezkoa ikusten dugu beste maila batera pasatzea, ardura gehiagorekin eta erantzukizun penala izango duten ekintzak eginez.

**— Zergatik aukeratu da desobedientziaren bidea?**

— Euskal Herria beti izan da desobedientea, edo, behintzat, kanpotik inposatutako legeen aurrean beti erakutsi du erresistentzia. Armadara ez joatearren, Amerikara joaten zen jendea; gero etorri zen intsumisioa. Horren bidetik, esaterako, erakutsi da posible dela lege bat aldatzea gizartearen interesak kontuan hartuz. Uste dugu hori aplikagarria dela bestelako esparrutan, subiranotasunaren esparruan, hain zuzen ere. Herritarrek protagonismo handiagoa izan behar dute, Euskal Herriaren etorkizuna ezin da utzi, ez ETAren esku, ezta alderdi politikoen esku ere. Eta protagonismoa berreskuratzeko bide apropos, eraginkorra eta zilegizkoa da desobedientzia zibila.

**— Zer da, baina, desobedientzia zibila?**

— Norberaren ustez okerra den inposatutako lege bat aldatzeko ahalegina. Desobeditzaileak inori kalte fisiko edo bestelakorik egin barik, lege hori hausten da, zigor bat jaso daitekeela jakinez. Jakiteaz gain, zigor hori jasotzeko prest egoten da desobedientea, jendeari ezagutarazteko lege hori eta ezarritako zigorra ere ez direla justuak. Horrek arriskua ekartzen du norberarentzat, eta norberak erabakiko du zer egiteko edo emateko prest dagoen.

Ondorioz, desobedientzia zibila eta indarkeria guztiz kontrajarrita daude. Mota guztietako indarkeria, bai ETArena, bai kale borroka...

Gure ustez, desobedientzia zibila guztiz plurala da, oso eraginkorra, indartsua eta erabat zilegizkoa.

Historiak eman ditu adibide onak: Gandhi, Mandela...

**— Desobedientzia zibi-**

**“Desobedientzia zibilean lanean ibili direnak ETAko kolaboratzaile moduan daude atxilotuta, publikoki indarkeriaren aurka agertu arren”**



TALDEA)

# *n da desobedientea”*

**lak indarra hartu du edo beldurra hartu diote...**

—Bai. Alde batetik, lehendik badute esperientzia intsumisioarekin, eta argi dago horrek beldurra ematen diela. Orain ikusi dute euskaldunok protagonismoa hartzeko bide bat badagoela eta hori moztu nahi dute.

Garbi dago ETA Estatuarentzat oso errentagarria dela politikoki eta momentuan ez zaio beste su-etenik interesatzen. Badaki ETArentzat posible dela beste su-eten bat abian jartzea, baldin eta gizartean mugimendu indartsu bat sortuko balitz eta gizarteak Estatuarengan eragina izan dezaleela jakinez gero. Baina, estatuari ez zaio interesatzen indarkeriazko euskal erresistentzia ez-oldartsu izatea.

**— Horregatik egin dira azkenaldiko atxiloketak?**

— Bai noski. Argi dago Estatuak beldurra diola, tresna indartsu bat izan daitekela ikusten baitu; hasiera-hasieratik kriminalizatu nahi izan du eta, horretarako, ETArekin lotu du. Desobedientzia zibilean lanean ibili direnak ETAko partaide edo kolaboratzaile moduan daude atxilotuta, nahiz publikoki askotan agertu diren indarkeria erabiltzearen aurka.

**— Zein mezu kaleratuko zenuke ABKren izenean?**

— Abertzaleak ez direnei: komunikabide manipulatzaileei kasurik ez egiteko eta auzokideekin berba eginez ados jarri gaitezkeela, baina horretarako hitza eman behar zaigula.

EAJ eta EAri: interes elektoralak ahazteko eta eraikuntza nazional eta sozialean lanean hasteko, Udalbiltza eta bestelako erakunde nazionalak abian jarriz.

Ezker abertzaleari: kale borroka desagertarazi eta indarkeriarik gabeko bideez ordezkatzeko ahalegina egiteko.

ETAri: berehalako su-eten iraunkor bat iragartzeko.

Oro har herritarrei: gure herria eta estatuen arteko gatazka politikoa konpontzeko garaia dela. Konponbidea elkarrizketaren eta autodeterminazio eskubidea gauzatzearen ondorioz bakarrik etorriko da eta desobedientzia zibileko ekintza baketsuekin lan egin behar dugu; esperantzarik ez galtzeko, baina, eskuak poltsikotik ateratzeko. ■



## Emaitzak

**A taldea**

Txeyenex 5 - Kanp. Harrobia 3
The Pippol 4 - Katxiporra 8
IKP 2 - Goma 2 6
Dribling 5 - Betrayer 4
AL Ion 0 - Aurrera Bolie 18
Serengeti 5 - AC Surkos 6
Makanaki FC 1 - YK Azkena 4
Leya 1 - Bikain Akademia 5
Komando Alp. 4 - Lasagabaster 2

**B taldea**

Abocajarro 0 - Fraguel Gol 10
Rayo Aldeano 3 - Etxerat Tab. 6
Irati STS 7 - DKB Kobate 3
AT Celaya 6 - Koka Juniors 5
Full Duplex 2 - AKTA 6
Ondakinak Iriztu 4 - Txotx 1
Sas T 0 - Kamasutra 4
EPEH 2 - New Makai 0
Pepe.inserso.com 3 - U.Potroak 1






Zapatuan partida interesgarri bat egongo da. Goizeko 11:00etan lagunarteko derbia jokatuko dute Leyak eta Aurrera Boliek. Bi taldeak kuadrilla berekoak dira. Hau da hau marka!

## Sailkapenak

| A taldea | PARTIDAK Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | GOLAK Alde | Aurk. | PUNT. Guzt. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aurrera Bolie | 2 | 2 | 0 | 0 | 20 | 1 | **4** |
| Goma 2 | 2 | 2 | 0 | 0 | 17 | 4 | **4** |
| Komando Alpargat | 2 | 2 | 0 | 0 | 13 | 9 | **4** |
| Dribling | 2 | 2 | 0 | 0 | 12 | 5 | **4** |
| Bikain Akademia | 2 | 2 | 0 | 0 | 11 | 5 | **4** |
| Lasagabaster | 2 | 1 | 0 | 1 | 12 | 8 | **2** |
| A.C. Surkos | 2 | 1 | 0 | 1 | 12 | 10 | **2** |
| Katxiporra | 2 | 1 | 0 | 1 | 10 | 10 | **2** |
| Serengeti | 2 | 1 | 0 | 1 | 9 | 10 | **2** |
| Leya | 2 | 1 | 0 | 1 | 7 | 7 | **2** |
| Kanp. Harrobia | 2 | 1 | 0 | 1 | 7 | 8 | **2** |
| Txeyenex | 2 | 1 | 0 | 1 | 6 | 9 | **2** |
| Y.K. Azkena | 2 | 1 | 0 | 1 | 6 | 12 | **2** |
| Betrayer | 2 | 0 | 0 | 2 | 11 | 14 | **0** |
| The Pippol | 2 | 0 | 0 | 2 | 7 | 13 | **0** |
| I.K.P. | 2 | 0 | 0 | 2 | 7 | 18 | **0** |
| A.L. Ion | 2 | 0 | 0 | 2 | 4 | 24 | **0** |
| Makanaki F.C. | 2 | 0 | 0 | 2 | 2 | 6 | **0** |

| B taldea | PARTIDAK Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | GOLAK Alde | Aurk. | PUNT. Guzt. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Etxerat Taberna | 2 | 2 | 0 | 0 | 21 | 4 | **4** |
| Irati S.T.S. | 2 | 2 | 0 | 0 | 15 | 5 | **4** |
| Fraguel Gol | 2 | 2 | 0 | 0 | 13 | 1 | **4** |
| Pepelus.Inse.Com | 2 | 2 | 0 | 0 | 8 | 2 | **4** |
| E.P.E.H. | 2 | 2 | 0 | 0 | 8 | 4 | **4** |
| Iriztu | 2 | 2 | 0 | 0 | 7 | 2 | **4** |
| Koka Juniors Basat | 2 | 1 | 0 | 1 | 11 | 7 | **2** |
| Akta | 2 | 1 | 0 | 1 | 7 | 7 | **2** |
| A.T. Celaya | 2 | 1 | 0 | 1 | 7 | 8 | **2** |
| Kamasutra | 2 | 1 | 0 | 1 | 6 | 3 | **2** |
| Full Duplex | 2 | 1 | 0 | 1 | 5 | 8 | **2** |
| Txotx | 2 | 1 | 0 | 1 | 4 | 4 | **2** |
| Rayo Aldeano | 2 | 0 | 0 | 2 | 5 | 14 | **0** |
| D.K.B. Kobate | 2 | 0 | 0 | 2 | 4 | 10 | **0** |
| Abocajarro | 2 | 0 | 0 | 2 | 4 | 16 | **0** |
| Usotz Potroak | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 3 | **0** |
| Alai Gozokiak | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 6 | **0** |
| New Makai | 2 | 0 | 0 | 2 | 1 | 17 | **0** |
| Sas-T | 2 | 0 | 0 | 2 | 0 | 7 | **0** |

## Hurrengo partidak / 3. jardunaldia

**azaroak 25, larunbata**

| **Zaldibar** | | **Epailea** |
|---|---|---|
| 08:50 | The Pippol - Bikain Akademia | (DKB Kobate) |
| 10:00 | Rayo Aldeano - DBK Kobate | (Bikain Akademia) |
| 11:00 | Leya - Aurrera Bolie | (Rayo Aldeano) |
| 12:00 | Serengeti - Goma 2 | (Aurrera Bolie) |
| 13:00 | Kanpanzar harrobia - Katxiporra | (Serengeti) |
| 14:00 | Iriztu - Kamasutra | (Katxiporra) |
| 15:00 | Betrayer - Txeyenex | (Kamasutra) |
| 16:00 | Komando Alpargat - AC Surkos | (Txeyenex) |
| 17:00 | IKP - Makanaki FC | (Komando Alpargat) |
| 18:00 | Etxerat Taberna - EPEH | (Makanaki FC) |
| 19:00 | Abocajarro - KJ Basati | (EPEH) |

| **Iturripe A** | | **Epailea** |
|---|---|---|
| 14:50 | New Makanaki - Fraguel Gol | (Lasagabaster) |
| 16:00 | Dribling - Lasagabaster | (Fraguel Gol) |

| **Iturripe B** | | **Epailea** |
|---|---|---|
| 14:50 | Sas T - AKTA | (Txotx) |
| 16:00 | Irati STS - Txost | (AKTA) |

**azaroak 26,igandea**

| **Zaldibar** | | **Epailea** |
|---|---|---|
| 10:50 | Pepelus.inserso.com - Alai Gozokiak | (Full Duplex) |
| 12:00 | Full Duplex - Usotz Potroak | (Alai Gozokiak) |
| 13:00 | AL Ion - Azkena YK | (Usotz Potroak) |

**Atsedena:** AT Celaya

# Abenduak 1
# OSTIRALA
# Gaueko 10:30etan
# Arrasaten Uharkape Pilotalekuan

PILOTAJALDIA



10 euskaldunon Egunkaria urte

ARRASATEKO UDALA

1. GONI II – BERNA / OLAIZOLA II – GOÑI III

2. GONZALEZ – HIRIGOIEN / XALA – OTXANDORENA

Ford

MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 797 564

## ERRUGBIA
### Egurra etxean

Arrasateko errugbilari gazteek egurra jaso zuten Garagartzan. Durangoren aurka jokatu zuten larunbatean eta ez ziren gai izan punto bakarra ere lortzeko. Aurkariek, ordea, 27 tanto egin zituzten. Markagailua ikusita, beraz, komentariorik behar ez duen partida izan zen.

Nagusiek ere galdu egin zuten. Bilbon jokatu zuten Universitarios-Bilbaoren aurka.

Lehenengo zatian joko parekoa egin zuten bi taldeek, baina bigarrenean bilbotarrak nagusi izan ziren eta mondragoetarrek ez zuten erantzuten jakin izan. 53 eta 5 amaitu zen neurketa.

Larunbatean etxean arituko dira 16:00etan. Sailkapen nagusian lehenengo doan taldearen aurka jokatuko dute, Atletico de San Sebastinen aurka, hain zuzen ere..

## FUTBOLA
### Irabazi

Lehen erregionaleko Mondra taldeak irabazi egin zion Lasarteko Ostadar taldeari. Atxabalpen jokatu zuten neurketa eta 3 gol sartu zituzten mondragoetarrek. Lehen zatian Mondrako jokalari bat kalera bota zuen epaileak, eta golik gabe amaitu bazen ere, bigarrenean etxekoek aurrera egin zuten eta nagusi izan ziren. Bigarren gola penaltiz egin zuten, eta partida amaitu aurretik hirugarrena ere sartu zuten.

## SASKIBALOIA
### Oraingoan galdu

Kenci Arrasate taldeak galdu egin zuen Leioan Profusaren aurka. Lehenengo bi laurdenetan nahiko antzera aritu ziren bi taldeak, baina hirugarren laurdenean joko hobea egin zuten leioarrek eta 20 tantoko aldea lortu zuten. Azkenean, aldea txikitu zen arren, galdu egin zuten Lander Errastiren mutilek (82-70).

Aipatzekoa da Kenci Arrasateko Dani Aiastui, Jon Basurko eta Jokin Lazpiur ez zirela partidan izan. Basurko eta Lazpiur min hartuta daude.

Larunbatean Iturripen jokatuko dute, 18:00etan, Erro eta Eugi talde nafarraren aurka.

## XAKEA
### Berriro lehenengoak

Berriz ere lehenengo tokian dago Arrasate A laukotea. 4 eta 0 irabazi zuten Urnietaren aurka Ortegak, Tornayk, Hernandok eta Ruizek. Larunbatean Donostiako Fortunaren aurka arituko dira Al Andalus elkartean. Neurketa zaila izango da, baina lehen tokian segitzeko, saiatu egin behar. Arrasate Bk ere irabazi egin zuen Lazkaoren aurka (1,5 - 2,5). Horri esker, azken izateari utzi diote. Hauek ere etxean arituko dira larunbatean Ibarraren aurka.

## Frontenis txapelketa

Aretxabaletako frontenis txapelketako finalerdiak bergararrek eta arrasatearrek jokatuko dituzte. Larunbatean, 16:30ean, Iñaki Sanchez eta Kepa Garcia arrasatearrak Igor eta Joseba Cusi bergararren aurka arituko dira. Ondoren, Jose Izquierdo eta Candido Urtado mondragoetarrek Patxi Vallejo eta Xabier Albizua bergararrak izango dituzte aurrez aurre, 17:15ean.

## Emaitzak

**SASKIBALOIA**
- **Seniorrak:** Profusa 82 - Kenci Arrasate 70
- **23 urte azpikoak:** Kenci Arrasate 65 - Etxadi 74
- **Juniorrak:** Bergara 48 - Kenci Arrasate 46
- **Kadete mutilak:** Zarautz 57 - Kenci Arrasate 71
- **Kadete neskak:** Kenci Arrasate 42 - Internacional 48

**FUTBOLA**
- **Lehen erregionala:** Mondra 3 - Ostadar 1
- **Lehen mailako gazteak:** Eibartarrak 1 - Mondra 3
- **Bigarren mailako gazteak:** Gazteak 0 - Arrasate 6
- **Ohorezko kadeteak:** Real Union 5 - Arrasate 0
- **Bigarren mailako kadeteak:** Arrasate 1 - Soraluze 0
- **Ohorezko infantilak:** Real Union 3 - Arrasaste 0
- **Lehen erregionaleko neskak:** Bergara 0 - Mondra 1

**ESKUBALOIA**
- **Seniorrak:** Ormaiztegi 10 - Arrasate Almen 24
- **Kadeteak:** Almen 23 - Arrasate 14

**ERRUGBIA**
- **Seniorrak:** Universitarios Bilbao 53 - Arrasate 5
- **Gazteak:** Arrasate 0 - Durango 27

**XAKEA**
- **Gipuzkoako liga:** Urnieta 0 - Arrasate A 4<br>Lazkao 1,5 - Arrasate B 2,5
- **Lehen maila:** Mutriku 3 - Arrasate C 1<br>Ibarra B 0, 5 - Arrasate E 3,5

## Jokatzekoak

**SASKIBALOIA**
larunbatean
- **23 urte azpikoak:** Kenci Arrasate - Alde Zaharra, 20:00etan.
- **Kadete mutilak:** Kenci Arrasate - Internacional, Musakolan, 12:15ean

**ESKUBALOIA**
igandean, Iturripen
- **Gazteak:** Arrasate - Legazpi, 11:15ean
- **Kadeteak:** Arrasate - Bergara, 10:00etan

**FUTBOLA**
igandean
- **Lehen mailako gazteak:** Mondra - Hamaikabat 12:15ean
- **Bigarren urteko gazteak:** Arrasate - Aurrera Ondarrua 15:30ean
- **Ohorezko kadeteak:** Arrasate - Zarautz larunbatean, 11:30ean

**ERRUGBIA**
- **Seniorrak:** Arrasate - Atletico de San Sebastian larunbatean, 16:00etan

**XAKEA**
Al Andalusen, larunbatean 16:00etan
- **Gipuzkoako liga:** Arrasate A - Fortuna<br>Arrasate B - Ibarra

**PILOTA**
Uarkapen, larunbatean 10:00etan
**Gipuzkoako kluben arteko txapelketan**
- **2. eta 1. mailako gazteak**
- **2. mailako afizionatuak,** Gipuzkoako final laurdenak

# Lau t'erdiko txapelketa Uarkapen


Nagore eta Unanue asteazkenean izan ziren Uarkapen.

Unanue eta Nagore Asegarceko pilotariak izango dira aurrez aurre larunbatean, Arrasateko Udal Pilotalekuan. Joan den asteburuan biek irabazi zituzten euren partidak. Mikel Unanuek Julian Retegiri irabazi zion (22-20), Retegik bien arteko aldea dezente txikitu eta gero. Nagorek, berriz, Errandoneari irabazi zion (22-10).

Iazko txapeldunak, beraz, ez du aurkari makala izango.

Estelarraren aurretik eskuz binakako partida jokatuko da: Agirre eta Zearra, Berasaluze VIII.a eta Belokiren aurka. Eta pilota jaialdia amaitzeko, eskuz binakako beste partida bat: Minguez eta Taberna, Beloki II.a eta Pascualen aurka.

**PILOTA AUKERAKETA**

Unanue eta Nagore asteazkenean Uarkapeko Udal Pilotalekuan egon ziren pilotak aukeratzen. 104 eta ia 107 gramo arteko pilotak aukeratu zituzten. Jende asko egon zen bi pilotariei begira.

Jaialdia arratsaldeko 16:30ean hasiko da eta sarrerak ordubete lehenago erosi ahal izango dira Uarkapen bertan, 3.000 pezetan.

**10.EAN AIDANEZ**

Euskaldunon Egunkariak, bere 10. urteurrena ospatzeko, pilota jaialdia antolatu du Uarkape Udal Pilotalekuan. Eskuz binakako bi partida antolatu ditu, eta ez hala-holakoak, gainera. Gonzalez-Irigoien eta Xala-Otxandorena izango dira aurrez aurre lehenengoan, eta estelarrean, berriz, Goñi II.ak eta Bernak jokatuko dute Olaizola II.a eta Goñi III.aren aurka.

Partidak gaueko 22:30ean hasiko dira eta sarrerak jaialdia hasi baino ordu erdi lehenago jarriko dira salgai.

# Beteranoak bikain aritu ziren Eibarren


Argazkia:Antxon Gutierrez

Bolumburu memoriala jokatu zen joan den igandean Eibarren. Arrateko landetan euria eta hotza egin zuen, baina Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko beteranoek eguraldi horrekin kirolari bikainak direla erakutsi zuten. Gizonezkoetan, Jabier Mentxaka lehenengoa izan zen. Behobia-Donostian ere bera izan zen beteranoetan bailarako lehenengoa eta Arrasateko azkarrena. Eibarren ere ez zuen areriorik izan. 5.200 m.ko lasterketako txapelduna izan zen.

Argazkian irabazitako garaikurrarekin ikus dezakezue Jabier Mentxaka.

Emakumezkoetan, Mari Jose Gilek sasoiko dagoela erakutsi zuen eta 3.800 m.ko lasterketan hirugarren izan zen.

Igandean, Donostian, beste maratoi bat jokatuko da eta hantxe izango dira Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko dozena bat kirolari.

## Kiroldegiko lanak hasiko dira

Datorren astetik aurrera lanak egiten hasiko dira Musakolako kiroldegian. Hamar hilabetez jardungo dute, hiru alditan banatuta.

Lehenengo aldia, 2000ko abendutik 2001eko otsailera artekoa izango da, eta harmaila azpiko aldagelak eta kirol medikuntzako lokala berriztuko dira.

Bigarren aldiak, 2001eko martxoan hasi eta maiatzera arte iraungo du; aldagelak eta sauna berriztuko dira.

Eta hirugarrenean, ekainetik irailera arteko aldian, igerilekuetako aldagelak eta lehenengo pisua berriztuko dira. Horrekin batera, elbarriendako sartu-irteerak ere egokituko dira.

Azkenengo aldi horretan kiroldegia itxita egongo da eta bakarrik kanpoaldeko igerilekuak, pilotalekuak eta Antoña pabilioia erabili ahal izango dira.

Lan hauek direla eta, jendeak jasan beharko dituen eragozpenak kontuan hartuz, AUKEAko zuzendaritza batzordeak aurtengo prezioak ez igotzea erabaki du.

## Reala eta Alaves aurrez aurre Atxabalpen

Reala eta Alavesen arteko partida jokatuko da Atxabalpen larunbatean. Lehen mailako partida izango da, baina ez lehen mailako taldeekin, gazte mailako taldeen arteko ligako partida da-eta. Norgehiagoka arratsaldeko 3,30etan hasiko da eta Realak etxeko talde gisa jokatuko du.

Hamar urte, hamaika kirol

# Zer da eskola kirola?

**Gipuzkoako Foru Aldundiak du eskola kirolaren ardura. Diputazioari dagokio egiten diren jarduerak antolatzea, urteko programak egitea eta horiek onartu eta gauzatzea. Eta kirola egiteko proposamena ez da kirolean neskamutiko lehiakorrak egitea. Helburua ikasleek ahalik eta kirol gehien ezagutzea da.**



**Proiektua 6 eta 14 urte bitarteko eskola-umeen kirolaz arduratzen da.**

Hori dela eta, Diputazioak Gipuzkoako kirol federazioekin harreman estua dauka. Batetik, adin bakoitzean egin beharreko kirola zehazten dute eta berau modu egokienean erakusteko bidea. Bestetik, txapelketarik egin behar izanez gero, ze irizpideren arabera antolatu behar diren erabakitzen dute. Garrantzitsuena txapelketetan ez da emaitza, baizik eta joko arauak errespetatzea eta lehiaketa jokalarien ezaugarri eta interesei egokitzea.

### HERRIZ HERRI

Diputazioa eta Gipuzkoako kirol federazioen arteko programa aurrera eramateko herri bakoitzean eskola kirolaz arduratzen den talde bat dago. Arrasaten, esaterako, "Arrasate Kirol Proiektua" edo AKP. Elkartean ikastetxeetako ordezkariak, udal kirol eta hezkuntza teknikariak eta herriko kirol elkarteetako ordezkariak biltzen dira. Guztien artean erabakitzen dute Diputaziotik bideratzen den programa nola gauzatu; lehendabizi, eskola bakoitzaren berezitasunak izan behar dira kontuan, eta, bigarrenik, ikasturtean zehar egin beharreko kirol ekintzak antolatu behar dira.

Proiektua 6 eta 14 urte bitarteko eskola-umeen kirolaz arduratzen da, hau da, eskola orduetatik kanpo egiten den kirolaz: antolatu, bete, eta ahalik eta jende gehien erakartzea eta modurik egokienean kirola egitea.

## Asteburuko hitzorduak Azaroak 25, larunbata

### SASKIBALOIA

Autobusa Garibaien

*San Viator Haundin*

**NESKAK**

**09:30** S. Viator B - Aozaraza 1b
**10:30** SFX - M. Lagundia
**11:30** S. Viator A - Torrebaso

*Gazteluondon*

**MUTILAK**

10:30 SFX - Ipintza
11:30 S. Viator - Txanxti DBH 2am

### FUTBOLA

Autobusa Garibaien

*Atxabalpen*

**NESKAK**

**09:00** Arrasate - Kurtzebarri

*Ibarran*

**10:00** Txantxi DBH 2a - La Merced
**10:00** Txantxi Dbh 1a - SFX

**MUTILAK**

*Almenen*

**10:30** Almen - SFX

*Musakolan*

**10:30** La Merced - Kurtzebarri

### AURREKIROLA

*Iturripe*

**09:30** Aramaio - SFX A
Erguin - La Merced A
**10:15** SFX U - Musakola
La Merced B - SFX D
**11:00** SFX ST - SFX B
S. Viator A - SFX C
**11:45** S. Viator B - SFX E

### MULTIKIROLA
### MINISASKIBALOIA

**NESKAK**

*Musakola*

**10:45** SFX A - SFX U
**12:15** La Merced - Erguin

**MUTILAK**

*Musakola*

**10:45** Musakola - S. Viator A
**11:30** SFX B - SFX U
Aramaio - S. Viator B
**12:15** La Merced - Erguin
SFX A - **Atsedena**



# Bailarako euskalkiaren alde



Koldo Zuazoren ustez, euskalkia erabiliz hizkuntza bera hobetu dezakegu.

Deba ibarreko euskalkia prestigiatzea, aztertzea eta zabaltzea, euskara bera aberastuz. Helburu horiek betetzeko jaio da Badihardugu Alkartia, bailarako hainbat herritako -tartean Arrasate- lagunek osatua. Horren berri eman zuten eguaztenean taldeko kide diren Juan Martin Elexpuruk eta Miriam Txintxurretak.

Badihardugu Alkartia-ren ustez, herriko hizkerek gutxiespena jaso dute; horrek konplexuak sortu ditu, hainbat berba eta esamolde galdu dira eta euskararekin gozatze eza ekarri du, eta aje horiek sendatzeko gogoz ekingo diote lanari.

Elkarteko kide da Koldo Zuazo irakaslea, eta euskalkiak indartzeko filosofia berbera du oinarri bere liburu berriak, "Euskararen Sendabelarrak". Martitzenean aurkeztu zuen Koldok liburua Arrasaten. Lan horretan euskarak jasaten dituen gaitzak azpimarratzen dira. Horien konponbidea, Koldok esan zuenez, euskalkiak egoera guztietan eta konplexurik gabe erabiltzean datza, eurek ematen digute-eta hizkuntzaren sena, hau da, sortzeko ahalmena, eta ondo dagoena eta txarto dagoena bereiztea.

# Arrazakeriari buruzko ume-antzerkia

Umeek ikuskizun polita izango dute zapatuan: *Kukubiltxo* talde bizkaitarraren "Txirrikiz" antzezlana. Arrazakeriaren inguruko gogoeta planteatzen da modu arinean. Errose Bustintza "Mañariko" ipuin kontalariaren istorio baten moldaketa da, orain 100 urte jaiotako emakume hari omenaldia egin nahi zaio-eta. Pertsonaia mitologikoak ere agertzen dira.



Txirrikiz izeneko neska da antzezlaneko protagonista. Beltza izateagatik baztertu egiten du Peli mutikoak. Baina, fantasiazko mundu batean sartuko da Peli, eta han ikasiko du pare bat gauza.

# Hizkera ez sexista

Euskara mugarri hartuz, bi egitasmo interesgarri eskaintzen dizkigu aste honetarako Ekin Emakumeak elkarteak.

"Euskara eta Sexismoa: hizkuntzaren erabilera ez sexista" hitzaldia emango du eguenean Begoña Muruaga adituak. Ekinen ustez, berba egiterakoan ez gara konturatzen hizkuntzak duen kutsu sexistaz: adibidez, "giza-" erroaren erabilera "eme-" aintzat hartu gabe. Horiek gainditzeko aholkuak ere emango dira.

**IRAKURKETA**

Egun berean irakurketa tailerra hasiko da. Euskaraz dakiten, baina gaztelaniaz irakurtzen duten emakumeei dago zuzendua, eta euskaraz irakurtzeko ohitura sustatzea du helburu.

# Txuma Murugarrenen emanaldia

Pop musikaren alaitasuna eta kantautoreen sakontasuna batzen ditu *Txuma Murugarren* musikariak. Guk zuzenean entzuteko aukera izango dugu, Arrasatera ekarriko du-eta Topagunearen Kultur Errota egitasmoak. Abenduaren 1ean izango da emanaldia, Basati tabernan, 22:30ean.

**SENTIBERA**

*Sasoi Ilunak* taldeko bakarlaria izan zen *Txuma*. Orain bakarlari moduan dihardu. Bere azken diskoan kantuak ahots garratzez mamitzen ditu, sentiberatasun karga itzelarekin. Batzuetan *Dylan*en musikaren antza hartzen dute bere melodiek.

## kontzertuak

**JAM**EKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.
Abenduak 2:
**Electro Dance Party**

**3** *sarrera*

Azken eguna: datorren egubakoitza.
Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

**Izen-deiturak:** .......................

**Tel.:** ...............................

**Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31**

## asteko **filma**



### Snatch, cerdos y diamantes

(Snatch), EEBB, 2000. Komedia. **Zuzendaria:** Guy Ritchie. **Aktoreak:** Benicio del Toro, Dennis Farina, Brad Pitt, Vinnie Jones, Ewen Bremmer. **Kalifikazioa:** 13 urtetik gorakoentzat.

**HARIA**

Imajinatu harribitxien lapur bat, New Yorkera bidean, Londresen gelditzen dela. Hango harribitxi saltzaile batzuekin tratu batzuk egin eta bitartean, apustuak egiten diren toki batera joaten dela. Apustuak antolatzen dituzten mafiosoek, jakina, ez dute garbi jokatzen, nahiz eta kontuak garbi izan.

**KRITIKA**

Guy Ritchi izena irakurrita *Lock and Stock* filma datorkigu gogora. Eta *Snatch* filmak ere ildo bera segitu du: akzioa, erritmo bizia, umore beltza delakoaz nahastuta. Tarantino oporretan dagoen bitartean, Ritchi bezalakoek alaitu beharko dute zinema eskaintza. Horretara dator *Snatch*. Aktoreak ezagunak dira, baina ez dira aktore nagusi bakarrik, izen ezezagun askorekin batera lan egiten dute-eta. Filmak merezi du.

## irakurle eta **entzule**

**Iturria:** Hire

## diskoak

**SASH!**
**Best of Sash!** Encore une fois (Edel)



Urdin garbi kolorekoa da disko honen azala, eta soinuak kolorea balu, huraxe bera izango litzateke bere edukiena ere. Kristalaren gardentasuna eta leuntasuna duen musika lantzen du *Sash!*-ek. Eta hori ez da nolanahiko *disc-jockeya*, gaur egun Europan egiten den dantzarako musikaren erregea baizik, eta horren eredu dugu bere arrakasten bilduma hau. Hemen doinu biziak, aberatsak, dira nagusi, hamaika tendentziaz hornitzen direnak: *progressive, techno, trance* eta dantzarako musikaren poltsa handian sartzen diren beste adar guztiak. Hala ere, pop doinuen keinuei ez die muzin egiten. Estreinatu ziren garaiko freskotasunarekin datozkigu “Ecuador”, “Encore une fois” edo “Mysterious Times”. Baina, hain ezagunak ez diren beste harri bitxi batzuk ere baditugu: “Move mania”, “Colour the World” edo “With my own eyes”, esaterako. Aipamena merezi dute ere Sash!-en talentu eta teknikaren adierazgarri diren hiru dantza saio txiki.

## liburuak

**EDO ZU EDO NI**
**Ixiar Rozas.** Erein. 134 or.




Halako batean zera esaten dio Grazianari bere senarrak: “Edo zu edo ni”. Hau esan eta etxetik alde egingo du senarrak. Baina, Graziana bera ere bada aukeraketa hori egiteko gauza, eta halaxe erakutsi beharko dio bere buruari datozen garai malkartsuetan; izan ere, bizitzan egin beharreko aukeraketen gainekoa da *Ixiar Rozas*en lehen eleberri hau. Emazte eta ama zintzoa izan da betidanik Graziana, baina, egun batean, bidaia batean, beste gizon batekin maitemintzen da eta ezingo dio uko egin aurrean duen bizitza berriari. Baina, guztia ez da arrosa kolorekoa izango Grazianarentzat, hortxe izango dira-eta amodio berriak ekarritako larritasuna eta segurtasun eza ere. Kontakizun intimista dugu esku artean, beraz; neurri handi batean malenkoniatsua, baina mezu baikorra transmititu nahi duena.

## asteburuan **zer**

## kontzertuak

**HEAVYAREN *AHOTSA* JAMEN**

Musika melodikoan Frank Sinatra izan dena, heavyan Rob Halford da, “ahotsa”, alegia. Eta gaitzizen horrek Rob Halfordi buruz esan beharreko gehienak esaten baditu ere, bere inguruko hainbat kontu gogoratuko ditugu.



Izan ere, ezin daiteke alde batera utzi Robek musikan eman dituen urrats esanguratsu eta sakonenetariko batzuk. Garai bakoitzerako aurrekoiegia izan ote den pentsa dezakegu, *Deep Purple*n koruak egiten hasi eta bere txima luzeengatik taldetik bota zutenean. Baina, *Deep Purple*ko buru izateagatik ezagutzen dugu Halford, ezin dugulako talde hori aipatu bere emaria gogoratu barik. 18 bat urte eman zituen *Judas Priest*en, punta-puntako heavy musika landuz. Taldetik irten ondoren, gauzak ez zaizkio behar bezain ondo joan Rob Haldfordi. Orain, bakarlari moduan, “Resurrection” diskoa atera du: bere sustraietara bueltatzeko pasaportea. Baina, *Judas Priest*era itzultzea ere ez luke gaizki ikusiko. Momentuz, bera bakarrik izango dugu Jamen, domekan.

ANARI (BAKARLARIA)

# "Arriskatu nahi izan dut disko berriarekin"

**Azkoitiarra da, baina gaur egun Arrasaten bizi da. Txikitatik egin izan du musika, baina 18 urterekin murgildu zen mundu horretan buru-belarri. Hainbat talderekin ibili ondoren, bakarlari moduan dihardu orain, eta bakarkako bigarren diskoa aurkeztu berri du: "Habiak".**



**—Bigarren disko honetan, aurrekoarekin jarraitzea ala apurtzea bilatu duzu?**

—Aurreko diskoa eta hau desberdinak dira, arriskatu nahi izan dudalako; urrunago joan nahi izan dut. Jakina, norberaren zati bat diskoan dago beti; baina ahotsa, kantatzeko modua, desberdin irten zait oraingoan. Talde-lana ere inportanteagoa izan da oraingoan, eta hori sumatu egiten da. Konponketak ere pisu handikoak izan dira.

**—Tonu intimista eta malenkoniatsuari, ordea, eutsi egin diozu. Bilatu egiten duzu ala berez irteten zaizu?**

—Bietarik apur bat. Figurak egiten ditut eta hori adierazteko modua bilatzen dut, baina, azken batean, barrutik irteten zaidan gauza bat da. Ez dakit bestela idazten.

**—Sarrionandiaren beste egile batzuen hitzak hartzen dituzu. Zer dator lehenengo, esan nahi duzun horren ideia ala testuen aukeraketa?**

—Denetarik egiten dut. Batzuetan idatzita neuzkanak hartu eta horietatik abiatzen naiz abestiak egiteko. Beste batzuetan gaia zehaztuta izaten dut eta hitzak bilatu behar ditut.

**—Dagoeneko eman duzu diskoa aurkezteko kontzerturen bat.**

—Bai. Azkoitian. Beldur apur bat neukan; gainera, txelo eta teklatuaz lehenengo aldiz jotzen genuen. Baina, ondo moldatu ginen, eta jendeak ondo hartu gintuen. Hala ere, emanaldi batzuk eman eta gero hasten gara kontzertuekin gozatzen. Aurkezpen emanaldi hauetan dena primeran egin nahi duzu, eta tentsio horrek publikoarekin komunikazioa galerazten du neurri batean.

**— PJ Harvey eta beste emakume batzurekin ere konparatu zaituzte.**

—Ez naiz horiekin identifikatzen. Uste dut errazera jotzea dela konparaketa horiek egitea, emakume bakarlariak garelako bakarrik. Askoz harreman estuagoa izan dut gizonezkoek egindako musikarekin edo hainbat talderekin, emakumeek egindakoarekin baino, eta haiek izan ditut oinarri.

**"Ahotsa, kantatzeko modua, desberdin irten zait oraingoan. Talde-lana ere inportanteagoa izan da"**

## aste gazte

**■ DIRU LAGUNTZAK**

• Jose Migel Barandiaran Fundazioaren eskutik, Euskal Herriko Arkeologia eta Etnologia ikertzeko diru laguntzak. Epea: abenduak 31.

**■ LANA**

• Bergarako liburutegirako aldi baterako erdi mailako teknikaria behar da Epea: abenduak 2.

• Oiartzungo Udalak arkitektoa behar du. Epea: abenduak 17.

**■ IKASTAROAK**

• Emakumeentzako soldadura ikastaroa, emakume langabeei zuzendua. Ikastaroa Oñatin izango da, azaroan hasi eta martxora arte, goizez.

• Geriatria ikastaroa emakume langabeei zuzendua. Arratsaldez izango da ikastaro hau. Epea: azaroak 30.

• Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak "Hastapena eta segurtasuna goi mendian" ikastaroa antolatu du; abenduaren 2 eta 3an Tena bailaran egingo da.

**■ LEHIAKETAK**

• Artista Berrien lehiaketa. Arte plastiko eta ikus-entzunezkoen alorreko lanak sarituko dira. 18-30 urte bitartekoei zuzenduta, aurrez saritu gabeko lanak, diapositiba edo bideo formatuan aurkeztu beharko dira. Epea: abenduak 15.

• Portugaleteko 15. Komiki lehiaketa. Gai librea, zuri-beltzean edo koloretan, eta 4 orrialdeko luzerako lanak. Epea: urtarrilak 31.

• AED Elkarteak XIV.Arrasate lehiaketa antolatu du: ipuina, poesia, bertso paperak, komikia, euskalki grabazioa eta irrati erreportajeak dira arloak. Epea: otsailak 5.

**Argibideak:**
**GAZTE ZERBITZUA**
**☎ 943 77 00 65**

Goitb
Goiena Telebista

## OSTIRALA, 24

13:30 **Albiste aurrerapena.**
13:40 **Gatza eta Berakatza.**
13:55 **Hamaika Magazin** (errepika.)
20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
21:30 **Astebete.** Asteko gairik garrantzitsuenen errepasoa Marijo Deograciasekin.


Marijo Deogracias.

22:00 **Soinuz Blai.** Miren Gonzalezek aurkeztuta
22:30 **Gatza eta Berakatza.**

## LARUNBATA, 25

13:30 Asteko saioen errepika: **Gatza eta Berakatza, Xeleberri, Aurrez Aurre, Hamaika Magazin, Soinuz Blai, Astebete.**

## IGANDEA, 26

13:30 Asteko saioen errepika: **Gatza eta Berakatza, Xeleberri, Aurrez Aurre, Hamaika Magazin, Soinuz Blai, Astebete.**

## ASTELEHENA, 27

13:30 **Albiste aurrerapena.**
13:40 **Gatza eta Berakatza.**
13:55 **Astebete**
20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
21:30 **Goienasport.**
22:00 **Gatza eta Berakatza.**

## ASTEARTEA, 28

13:30 **Albiste aurrerapena.**
13:40 **Gatza eta Berakatza.**
13:55 **Goienasport** (errepika).
20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
21:30 **Mahaiaren Bueltan.** Monika Belastegik aurkeztuta.


Monika Belastegi.

22:00 **Gatza eta Berakatza**

## ASTEAZKENA, 29

13:30 **Albiste aurrerapena.**
13:40 **Gatza eta Berakatza.**
13:55 **Mahaiaren Bueltan** (errepika).
20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
21:30 **Alkatearekin Berbetan.** Aste honetan Aretxabaletako alkatearekin mintzatuko gara. Zuk ere zuzenean parte hartu ahal izango duzu 943 71 23 93 telefonora deituta.


Angel Bergaretxe.

22:00 **Gatza eta Berakatza.**

# Gatza eta Berakatza



Azken egunotan Oñati inguruan ibili gara platerak prestatzen. Aste honetan Bergarara joango gara, bertakoa daeta Rafa Zabala, Zabala jatetxeko sukaldaria. Zabala jatetxea Bergarako Labegaraietan dago.

## Datorren astean

| NOIZ | PLATERA |
|---|---|
| Astelehena, 27 | Entsalada intxaurrekin. |
| Asteartea, 28 | Menestra berezia. |
| Asteazkena, 29 | Atuna tipulatan. |
| Osteguna, 30 | Baserriko oilaskoa. |
| Ostirala, 31 | Soufflea ron erara. |

## OSTEGUNA, 30

13:30 **Albiste aurrerapena.**
13:40 **Gatza eta Berakatza.**
13:55 **Alkatearekin berbetan**
20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
21:30 **Ekilan.** Enpresen inguruko saioa da Ekilan eta Alberto Gorritibereak zuzentzen du.


Alberto Gorritiberea.

22:00 **Soinuz blai.** Aste honetan Haika Aizpurua arituko zaigu martxa jartzen GOITBn.


Haika Aizpurua.

22:30 **Gatza eta Berakatza.** Zabala jatetxeko Rafa Zabalarekin.

# Hamar sarrera Arrasate Irratian

arrasate
irratia
FM 107.7

Abenduaren lehenean Euskaldunon Egunkariak bere hamargarren urteurrena ospatuko du, eta horretarako pilota jaialdia antolatu du Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Eta Arrasate Irratiak hamar sarrera emango ditu. Astelehenetik ostegunera bitartean Igo Autobusera saiora deitu eta izena ematen dutenen artean, ostiralean zozketa egingo da. Hamar lagunek sarrera bana eskuratuko dute! Badakizue, beraz, astelehenetik ostegunera bitartean, deitu goizean zehar Aitziber Aranburuzabalaren saiora, 943 77 17 31 zenbakira, eta eman izena. Ostiralean, berriz, adi egon irratiari!



**ARRASATE IRRATIKO LANGILE BERRIA**

Maria Agirre astelehenean hasiko da Arrasate Irratian lanean. Herriko irratia indartzeko asmoz hasiko da Aitziber Aranburuzabala eta Alazne Ostolazarekin batera.

Ezaguna da Maria gure artean, *Arrasate Press*en eta ATBn ere ibili delako. Baina, irratian ere ibili izan da: Euskadi Irratian eta Herri Irratiko esatari izan da atxabaltar hau, eta astelehenetik aurrera Arrasate Irratiko esatari ere izango da.

**— Zein irrati entzuten duzu?**

— Euskadi Irratia gehienbat, baina Herri Irratia eta Euskadi Gaztea ere entzuten ditut.

**— Non entzuten duzu irratia?**

— Goizetan etxean entzuten dut. Horrela ikasi dut.

**— Esatari bat?**

— Mariano Ferrer. Badakit beti esaten den esataria dela, baina…

**— Irratsaioren bat?**

— Gustura entzuten dut Euskadi Irratiko Babilonia irrati-eleberria.

**— Zer gustatuko litzaizuke egitea Arrasate Irratian?**

— Irratia kalera ateratzea. Zuzeneko saioak egitea kaletik.

**— Zein da irratiaren alderik txarrena edo gutxien atsegin duzuna?**

— Goiz jaikitzea.

**ASTELEHENA - OSTIRALA**

| | |
|---|---|
| 09:00 | **Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.** |
| 09:55 | **Eguneko hitzorduak.** |
| 10:00 | **Igo autobusera I.** |
| 11:00 | **Albistegia.** |
| 11:15 | **Igo autobusera II.** |
| 12:30 | **Agenda, eskelak…** |
| 12:45 | **Albistegi nagusia.** |
| 14:00-18:00 | **Errepika.** |

**ASTELEHENEAN**

| | |
|---|---|
| 20:00 | **Jokoz Kanpo.** |
| 21:00 | **Draxtor.** |
| 22:00 | **In Session.** |

**ASTEARTEAN**

| | |
|---|---|
| 20:00 | **Hi bizi hadi.** |
| 21:00 | **Jakidiplost.** |

**ASTEAZKENEAN**

| | |
|---|---|
| 20:00 | **Binilo ordua.** |
| 21:00 | **KK2A.** |

**OSTEGUNEAN**

| | |
|---|---|
| 20:00 | **Ostegun-Ero.** |
| 21:00 | **Arakatzen.** |

**OSTIRALEAN**

| | |
|---|---|
| 20:00 | **Planing Prest.** |
| 21:00 | **Kale Doinuak.** |

**LARUNBATEAN**

| | |
|---|---|
| 10:00 | **Bihurrikerietan.** |
| 11:00 | **Musika klasikoa.** |
| 12:00 | **Bi zoro eta zu.** |

# Beste hamar sarrera

## Goienasport astelehena, 21:30

Euskaldunon Egunkariak bere hamargarren urteurrena ospatzeko antolatu duen pilota jaialdi horretarako ere GOITBk, Asegarceri esker, jaialdira joateko hamar sarrera ditu. Eta zuek sarrerak eskuratzeko aukera izango duzue: Gorka Etxabek zuzentzen duen Goienasport saioan, 943 71 23 93 zenbakira deitzen duten lehenengo hamar lagunek sarrera bana eskuratuko dute. Beraz, badakizue: azkar ibili!

BITTORI
ERRETEGIA
*Eguneko menua • Kartako menua*
*Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak*
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Aretxabaletan 90 m²ko etxebizitza salgai: 3 gela, bainugela, saloia eta trastelekua. Altzariak ere badauzka. Tel.: 659 45 05 79.

• Etxebizitza salgai Aretxabaletan. Tel.: 649 93 07 32.

• Etxebizitza salgai Aramaion, kalean bertan: 70 m². Salneurri interesgarria. Tel.: 655 74 59 26. Iban.

• Baños de Ebron (Arabako Errioxan) etxea salgai. 8 urte ditu. Sukaldea, txokoa, 2 logela, horma-armairuak, bainugela handia, terraza eta garajea (garajea plazara begira). Altzariduna. Tel.: 943 79 52 75. Felix.

• Etxebizitza salgai San Andresen. Tel.: 943 79 99 26. Eguerdian edo gauean deitu.

• Etxebizitza salgai Erguinen, garajearekin. Tel.: 943 77 12 77.

• Etxebizitza salgai Erguin inguruan. Tel.: 943 79 99 08. Gauez deitu.

• Etxebizitza salgai Ferreriasen. Tel.: 943 79 96 16.

• Etxebizitza salgai Makatzena kalean (70 m²). Sukalde-jangela, egongela, 3 logela, komuna, berogailua. Guztiz jantzia. 21 milioi. Tel.: 943 79 57 69.

### 2. Erosi

• Etxebizitza zahar bat erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 649 86 73 05.

### 3. Errentan emateko

• Bergaran, etxeko logelak alokatzen ditut. Sukaldea erabiltzeko aukera. 40.000-50.000 pezeta hileko. Tel.: 943 76 15 40.

• Ikasle batendako logela alokagai. Sukaldea erabiltzeko aukera. Tel.: 627 642 713.

• Etxebizitza alokagai arrasaten. Tel.: 943 79 28 21.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza bila nabil Arrasaten, konpartitzeko. Presakoa. Tel.: 945 27 80 59.

• Etxebizitza edo gela bila gabiltzan 2 ikasle gara. Tel.: 943 74 13 93 eta 943 67 26 45.

• Arrasaten etxebizitza alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 81 29 14. Ander (iluntzean deitu).

• Etxe txiki bat behar dut alokagai Arrasaten. Tel.: 943 79 61 72.

• Pertsona bakar batendako apartamentu edo estudio bat alokatu nahi nuke Debagoienean. Tel.: 943 71 53 17 (utzi mezua).

### 5. Etxeak osatzeko

• Etxebizitza alokatuko nuke beste ikasle batzuekin. Tel.: 943 80 64 05.

• Eski denboraldirako, beste bi pertsonarekin edo, etxebizitza osatuko genuke Jacan. Tel.: 943 79 68 04.

• Etxebizitza bila nabil Arrasaten, konpartitzeko. Tel.: 943 65 04 95. Gauez deitu.


**ETXEBIZITZAK**
1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

**GARAJEAK**
7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

**LOKALAK/ORUBEAK**
12. Saldu
13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

**LANA**
17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

**IRAKASKUNTZA**
20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

**MOTORRA**
23. Saldu
24. Erosi
25. Bestelakoak

**DENETARIK**
26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

**HARREMANAK**
34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak


**943 71 25 11**

**ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)**

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garajea salgai Arimazubin. Tel.: 943 79 99 26. Deitu eguerdian edo gauean.

• Garajea salgai Kontzeziñon, 18 (9 m²). Tel.: 943 79 96 17. 13:00 - 15:00 eta 21:00 - 22:00.

### 9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokagai Larrea auzoan. Tel.: 943 79 69 41.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Lokala salgai Zarugalde kaleko 6. zenbakian (60m²). Eta 22m²ko patioa. Tel.: 606 76 50 22.

• 100 m²ko lokala salgai. 2 solairu. Kalealdea, 4-behean. Tel.: 943 79 42 65.

### 15. Errentan hartzeko

• Lasai ikasteko lokal baten bila gabiltza. Tel.: 943 79 63 60. Denis.

• Gazte talde batek lokal bat behar du alokatzeko. Ahal bada, merkea izan dadila. Tel.: 943 79 26 19. Mikel.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Neska eta mutila prest edozein lanetan aritzeko. Tel.: 600 600 531.

• Neska prest umeak zaindu edo etxeko garbiketak egiteko. Tel.: 943 79 94 20. Camila.

• Taberna batean zerbitzari lanak egingo nituzke. Esperientziaduna. Tel.: 653 71 87 72.

• Errotulazio lanetan esperientziaduna prest, alor horretan lan egiteko. Tel.: 653 71 87 72.

• Geriatria eta klinika laguntzaileak, gaixoak, ezinduak eta gaixo terminalak zaintzen ditu, etxean edo ospitalean, eta baita gauez ere Tel.: 609 77 01 33.

• Neska prest garbiketa lanak egiteko. Tel.: 616 06 85 62. Rosmira.

• Emakumea prest plantxatzeko. Tel.: 943 77 06 74.

• Neska prest umeak arratsaldez zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

### 18. Eskaerak

• Neska edo emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 52 40. 19:30etik aurrera.

• Esperientziadun ile apaintzaile profesionala behar da. Ikaslerik ez. Tel.: 943 79 12 81. Lanorduetan deitu.

• Oso martxa onean doan fruta denda jabez aldatzen da. Tel.: 943 77 01 79.

• Tabernarako neska bat behar da, asteburuetan lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Dendaria behar da. Tel.: 943 77 06 77. Merkatari-orduetan deitu.

• Esperientziadun zerbitzaria behar da tabernan lan egiteko. Finko egiteko aukera. Tel.: 667 60 27 69.

• Neska euskaldun bat behar da denda batean lan egiteko. Tel.: 943 79 19 03.

• Emakumea behar da etxeko lanak egin eta ume bat arratsaldez zaintzeko; autoa beharrezkoa da. Tel.: 943 77 19 27. 19:00etatik aurrera.

### 19. Bestelakoak

• Udalpe kalean dagoen taberna salgai, edo alokagai. Tel.: 943 79 01 47.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak ematen dira, eta baita ikasketarako teknikak ere bai. Tel.: 630 70 81 43.

• Ingelesan magisteritza duen irakasle batek ingelesezko, euskarazko, gaztelaniazko eta matematikazko eskola partikularrak emango lituzke. Merke. Tel.: 943 79 37 17. Gauez deitu.

• Profesionalak laguntza eskolak emateko gertu. Tel.: 943 79 58 83. Arratsaldez deitu.

### 21. Eskaerak

• Ingeniaritza Teknikoko 1. mailako marrazki ikasgaiarako eskola partikularrak behar dira. Tel.: 943 79 37 96.

• Euskarazko eskolak behar ditut. Tel.: 943 79 09 69. 12:00 - 14:00. Amaia.

• Matematika eta fisikako eskola partikularrak jasoko lituzke Ingeniaritza Teknikoko 1. mailako ikasleak. Tel.: 639 62 87 63.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Opel Astra AX salgai; 1.600eko potentzia. Egoera onean, 4 urtekoa, merkea. Tel.: 617 60 84 45.

• Autoa salgai. SS - S. Oso merke. Tel.: 943 79 90 24.

• Yamaha Neo´s motorra (3.500 kilometro egin ditu) salgai. Nahiko berria. Tel.: 666 05 35 49 edo 656 75 39 95.

• Yamaha FZ-750 motorra salgai. SS-AD matrikula, egoera onean. Tel.: 659 29 84 43.

• Aprilia RS-50 motorra salgai. Iazkoa da. Tel.: 943 79 28 38.

• Cady motor beltza salgai. 30.000 pta. Tel.: 943 16 25 10. Asteburuetan.

• Landrover Discovery TDi horia salgai. 5 urte ditu eta egoera oso onean. Estra asko ditu. Tel.: 656 77 93 09.

• Renault Laguna, 2.200 diesel salgai. 3 urte. 72.000 km. Tel.: 943 76 45 73.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Piragua salgai, arraun eta ontzi estalkia, merkea, ia berria. Tel.: 943 79 78 36. Unai.

• GAC markako 2 bizikleta salgai, berriak, behin erabiliak, gizon eta emakumearendako. 40.000 pezeta (biak). Giltzarrapoa doan. Tel.: 943 79 65 80. 19:00 - 21:00.

• Yors-Shire txakurkumeak salgai. Tel.: 943 76 18 96.

• 90 zm.ko bi koltxoi salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 79 14.

• Masajea emateko mahaia salgai. Tel.: 649 22 51 07.

• 4 llanta salgai, pneumatikoekin batera. Golf 2, 5 palos. Neurriak: 185, 60, R14. Tel.: 646 76 76 52. Xabier.

• Bikote-logela: Roche Bobois markako ohea eta mahai-txoak. Tel.: 687 01 64 07.

• Umeendako logela: zuriz lakatutako armairua eta sinfonierra. Tel.: 687 01 64 07.

### 29. Eman

• Hil eta erdiko txakurkumeak oparitzen dira. Tel.: 676 37 96 36.

### 30. Hartu

• Bizikletarik sobran badaukazu, geuk hartuko genuke. Tel.: 943 79 49 11. Jesus.

### 31. Galdu

• Urriaren 31n, gauean, taberna batetik nirea ez zen txamarra bakeroa eraman nuen. Nik hartutakoa XL neurrikoa zen eta nirea L neurrikoa da; aurreko poltsiko txikian eskumuturreko bat zeukan. Txamarrak elkar trukatzeko 943 71 42 74 telefonora deitu. Sergio.

### 32. Aurkitu

• Zilarrezko pultsera aurkitu dut. Tel.: 943 79 49 06. Gauez deitu.

• Kontzertu baterako sarrera topatu dut. Bartzelonan izango da, abenduaren 14an. Tel.: 943 77 19 73. Justi.

GTC likidazioak
leku aldaketagatik
arropa guztia
likidazioan
%70a arte
Zarugalde, 14 • ARRASATE



Asteazkenean Santa Zezilia eguna izan zenez, musikariei eskaini diegu argazki zaharra. 1963. urtean dago aterata, Herriko Plazako kiosko aurrean.

Argazkiko lau gizonezkoak musikariak dira noski; baina, ez hori bakarrik: Arrasateko musika-bandak izan dituen azkenengo hiru zuzendariak dira. Bandako musikari bat omentzeko elkartu ziren egun horretan.

Ezkerretik hasita, agertzen den lehenengo pertsona Gregorio Solabarrieta da; 1921-1930 urteetan izan zen zuzendari. Ondoren, Miranda de Ebrora joan eta hango orfeoia sortu zuen. Hil zenean, Mirandako Udalak bere izena jarri zion kale bati.

Bigarrena Rufo Aranbarri da; erretiratu egiten zela-eta, omenaldia egin zioten. Hirugarrena, berriz, Justo Munarriz da (1930-1960); bere gidaritzapean indarra hartu zuen Mondragoeko bandak, baina gaixotu egin zen eta Juan Artzamendiri utzi zion bere lekua. Horixe da, hain zuzen ere, argazkiko laugarren gizonezkoa, eta berau izan zen bandaren azken zuzendaria. 1960. urtean hartu zuen gidaritza eta 1974. urtean utzi, banda desagertu zenean. Azken urte hauetan izen ona lortu zuen Mondragoeko bandak; handienen artean aritu zen, lehiaketak irabaziz eta makina bat kontzertu eskainiz; hauetako batean Donostiako Orfeoiarekin batera jo zuen.

Esan bezala, baina, 1974. urtean banda desagertu egin zen.

***Argazkia eta berriemailea:*** *Juan Artzamendi*

HITZALDIA:

## Euskara eta Sexismoa

HIZKUNTZAREN ERABILERA EZ SEXISTA

- **Noiz:** azaroaren 30ean.
- **Non:** Ekin Emakumeak elkartearen egoitzan.
- **Ordua:** 19:00etan.
- **Hizlaria:** Begoña Muruaga.

*Antolatzailea:* *Laguntzaileak:*

Ekin Emakumeak • AED
**Pablo Uranga, 4**
Tel.: 943 71 21 17
Faxa: 943 79 74 01
aed@topagunea.com

ARRASATEKO UDALA **Emakume Saila**
EMAKUNDE

IKASTAROA:

## Norberaren irakurketa

ZURE IRAKURKETA EUSKARAZ,
TALDE GIROAN ETA BATZUEK BESTEENGANDIK IKASIAZ.

- **Noiz:** azaroaren 30etik abenduaren 21era.
- **Non:** Ekin Emakumeak elkartearen egoitzan.
- **Ordua:** 15:00etatik 16:30etara.
- **Emalea:** Jon Iñaki Lasa.
- **Izenematea:** elkartean, azaroaren 28ra arte.

*Antolatzailea:* *Laguntzaileak:*

Ekin Emakumeak • AED
**Pablo Uranga, 4**
Tel.: 943 71 21 17
Faxa: 943 79 74 01
aed@topagunea.com

ARRASATEKO UDALA **Emakume Saila**
Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza

# Etxeko konponketak

## Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, ateak, oholtzak, leihoak etab.

AROZTEGIA LAGUN

Garagartza auzoa, 5-2. (Bixiena Baserria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde,5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

## Igeltsaritza

Izcue Irurzun

Igeltsaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Leihoak

ARGI PLASTIK

*PVC, aluminio termiko eta poliuretanozko leihoen lantegia.*

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

## Elektrizitatea

ARANZABAL KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

ARRASATE Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
**24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77**
Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

## Igeltsoak - Apaintzea

Pako eskaiolak S.L.

Markulete, 14
Tel.: 943 77 08 21

## Margoak

APAIN

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1
**Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17**

JOVI

**10.000 KOLORETAKO MENUA**

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

## Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53

AURI

Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak**
**Gasa • Berogailuak**

EGIA iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

## Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

## Tapizeriak

Konrado

Aulkiak, besaulkiak, sofak,...
**Eskatu aurrekontua.**
Nafarroa etorbidea, 23 MI11
Tel.: 607 45 72 51 • Arrasate

## Giltzak




• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketa • Larruzko gauzak • Pantografo bidezko grabaketa

**Eroski merkataritza zentroa, 1**
**Tel./Fax: 943 79 76 03**

Gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu 943 71 23 91 telefonora

Gosaldu



Bazkaldu



Afaldu



# Giro onenean!



# iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • Tel.: 943 79 00 43 • BAINU ERAKUSKETA Zarugalde, 52 • Tel.: 943 79 99 42